

# AISIAREN AURKIKUNTZA

# EL DESCUBRIMIENTO DEL OCIO

## AURKEZPENA

Zumalakarregi Museoaren argitalpen berri bat aurkeztea pozgarria da benetan guretzat, arestian bertako erakusketa iraunkorraren bermoldaketa zabaltzen jardun dugunean. Inaugurazio egunean genion Museoak aldaketak egiteko ateak itxita zituen bitartean, bertako lan programazioak martxan jarraitzen zuela eta eskutan duzue esandakoaren emaitza.

Museoak hogei urte betetzear dituenean, 2009ko maiatzean iritsiko da eguna, ohiko dituen ezaugarriak lantzen jarraitzen du, alegia, ikerketa eta difusioa uztartzen. Ikerketa, XIX. mendeko Euskal Herriaren ikuspegi desberdinak sakonki lantzen dituztelako Dokumentazio Zentruaren jardunaren bitartez. Difusioa, aipatu berri ditugun lanen emaitzak gizarteratzen saiatzen direlako, erakusketa iraunkorrean, eredugarria den web gunean eta, oraingoan bezala, arretaz prestatzen dituzten behin behineko erakusketetan.

Honela, gure historia aztertzeko ikuspegi bitxiak hautatzen dituztela diogu eta esku artean duzuen liburua dugu baieztapen honen eredu. XIX. mendera arte aisia soilik noblezia eta elizgizonen ondarea zen, pribilegiatuena beraz, gizartearen gehiengoak aukera bakarra lana zuen bitartean. Mende honetan irekiko dira aukera berriak, soziabilitate informalaren esparruak agertu eta garatuko dira, kultur ekintza eta zentru berriak, bereziki burgesiarentzat. Beraz, kafetegiak, tertuliak, museoak edo kasinoak aztertzen dira, besteak beste, behin behineko erakusketaren katalogo honetan.

Testuen egileak, XIX. mendeko gizartearen ikerketan eskarmentu haundikoak ditugu, unibertsitateetan historia irakasleak lehenengo lauak, azkenak ukitu literarioa eskaintzen digularik. Eskerrak eman nahi dizkiet hemendik, baita erakusketa egiteko piezak utzi dituzten instituzioei ere, guztien elkar lanaren emaitza baita eskutan daukazun katalogo hau.

Maria Jesus Aranburu
Kultura eta Euskara Diputatua

## PRESENTACIÓN

Es una satisfacción para nosotros presentar una nueva publicación del Museo Zumalakarregi, cuando acabamos de reinaugurar su exposición permanente. En aquel acto comentamos que aunque el Museo había tenido las puertas cerradas por las obras de remodelación, su programa de actividades continuaba en marcha y teneis en vuestras manos una buena prueba de ello.

Ahora que el Museo está a punto de cumplir 20 años, en mayo del 2009, continúa trabajando como nos tienen acostumbrados, combinando la investigación y la difusión. Investigación, analizando en profundidad los diversos aspectos del País Vasco en el siglo XIX, a través de las actividades del Centro de Documentación. Difusión, haciendo llegar los resultados de estas investigaciones a la sociedad, a través de la exposición permanente, su ejemplar página web y, como en esta ocasión, sus elaboradas exposiciones temporales.

Este libro es un buen ejemplo de las originales perspectivas que ofrece el Museo al análisis de nuestra historia. Durante el siglo XIX el ocio pasa de ser patrimonio exclusivo de la nobleza y el clero a formar parte de la vida burguesa. La aparición y el desarrollo de una serie de espacios de sociabilidad informal, de nuevos centros y actividades culturales, como cafés y tertulias, museos o casinos, entre otros, son los temas que se analizan en este catálogo.

Los autores de los textos, a los que queremos agradecer su colaboración desde aquí, son especialistas en la investigación sobre el siglo XIX, profesores universitarios los cuatro primeros, el quinto nos ofrece una visión literaria sobre el tema. También queremos agradecer la colaboración de todas las instituciones que han aportado materiales a esta exposición, imprescindible para la edición de esta obra.

Maria Jesus Aranburu
Diputada de Cultura y Euskara

**Zumalakarregi Museoak**
laguntza eskaini duten instituzio hauei beraien esker ona adierazten die

**El Museo Zumalakarregi**
agradece a las siguientes entidades la colaboración prestada

Museo de Historia de Madrid

Museo Cerralbo. Madrid

Musée Basque et de l'Histoire. Bayonne

Photomuseum. Zarautz

Museo San Telmo Museoa. Donostia-San Sebastián

Koldo Mitxelena Kulturunea. Donostia-San Sebastián

Donostiako Udal Liburutegia. Donostia-San Sebastián

**Zumalakarregi Museoak produzitua**
Exposición producida por Museo Zumalakarregi

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

DIPUTATU NAGUSIA
DIPUTADO GENERAL

**Markel Olano Arrese**

KULTURA ETA EUSKARA DIPUTATUA
DIPUTADA DE CULTURA Y EUSKERA

**Maria Jesus Aranburu Orbegozo**

KULTURA ONDAREAREN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTORA GENERAL DE PATRIMONIO CULTURAL

**Maria Pilar Azurmendi Echegaray**

Ondare Historiko-artistikoaren, Artxiboen eta Museoen Zerbitzuko burua
Jefa del Servicio de Patrimonio Histórico-artístico, Archivos y Museos

**Gabriela Vives Almandoz**

Museoen arduraduna
Responsable de museos

**Nekane Goenaga Maiza**

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
**Diputación Foral de Gipuzkoa**
Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

Z·M
MUSEO ZUMALAKARREGI MUSEOA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

## AURKIBIDEA
## INDICE

**Dr. Joseba Agirreazkuenaga.** Euskal Herriko Unibertsitatea ........................... 13

Aisiazko jarduerak euskal nortasunen berrikuntzen isla, "arin arin"aren soinupean (1764-1890)
Las actividades de ocio, reflejo de las innovaciones en las identidades vascas, a ritmo de "arin arin" (1764-1890)

**María Zozaya Montes.** Universidad Complutense. Madrid.............................. 35

Ocio liberado. El ocio en España durante el siglo XIX
Aisialdi askea. Aisialdia Espainian XIX. mendean zehar

**Pierre Géal.** Universidad de Grenoble (ILCEA). ........................................... 69

Los museos y el ocio en el siglo XIX.
Museoak eta aisialdia XIX. mendean

**Luis Ángel Sánchez Gómez.** Universidad Complutense. Madrid...................... 87

Espectáculos demasiado humanos.
Las exhibiciones de etnias salvajes en la Europa del siglo XIX
Ikuskizun gizatiarregiak. Etnia basatien erakustaldiak XIX. mendeko Europan

**Harkaitz Cano** ........................................................................................ 109

Homo Wi-fiaren hastapenak
Orígenes del Homo Wi-fi

# OCIO LIBERADO

## EL OCIO EN ESPAÑA DURANTE EL SIGLO XIX

# AISIALDI ASKEA

## AISIALDIA ESPAINIAN XIX. MENDEAN ZEHAR

## María Zozaya Montes

Al levantarse el telón
pensaban los espectadores sensatos en la pulmonía [...]
los cómicos temblaban de frío en el escenario,
dentro de la cota de malla,
y las bailarinas aparecían azules y moradas
dando diente con diente debajo de los polvos de arroz.

Leopoldo ALAS CLARÍN, La Regenta.

Durante el siglo XIX, el ocio estuvo jalonado por el cambio del Antiguo Régimen al Liberalismo, cuando pasó a liberalizarse económicamente, a explotarse como una industria y a ampliarse entre las diversas capas sociales. Varias constantes marcaron su evolución. Las iniciativas de mejorar los lugares de esparcimiento quedaron paralizadas por la Guerra de la Independencia. Fueron reemprendidas en los años 20 y 30, y se frenaron con la Guerra Carlista (1836-1839). Se impulsaron durante la Década Moderada (1843-1853), para lo cual se acondicionaron numerosos espacios que procedían de las sucesivas desamortizaciones, a la par que se decoraron lujosamente los dedicados a la alta sociedad. Tras el Bienio Progresista (1854-56), comenzaron a modernizarse, introduciendo en ellos los avances técnicos, que se multiplicaron desde el último cuarto del siglo. A partir del Sexenio Democrático (1868-1874) se fueron popularizando variadas formas de recreo y sociabilidad entre las diversas capas sociales. Durante la Restauración Alfonsina se extremó la predilección por el lujo, gastándose grandes cantidades en acondicionar con la máxima ostentación los espacios de recreo.

Las numerosas formas dedicadas al ocio en aquel siglo no cuentan con una monografía ni con un estudio completo, por lo que intentaremos a continuación compendiar las más relevantes y explicar los cambios acaecidos en ellas.

### Ocio en el barrio, en la calle y en la plaza

A principios del siglo XIX, la distancia entre el ocio de la ciudad y el campo era mayor conforme aumentaba el grado de urbanización. En las capitales de provincia el ocio tendía a hacerse más exclusivista en las formas de desenvolverse,

## María Zozaya Montes

Oihala altxatzean
ikusle zentzudunenek pneumonian pentsatzen zuten [...]
komikoek hotzez dardara egiten zuten agertokian,
sare-kotaren barnean,
eta dantzariak urdin eta more ageri ziren
hortzak hortzez kolpatuz arroz-hautsen azpian.

Leopoldo ALAS CLARÍN, La Regenta.

XIX. mendean zehar, aisialdiak aldaketa bat bizi izan zuen, Antzinako Erregimenetik Liberalismora, ekonomikoki liberalizatu eta industria gisa ustiatua izaten hasi zenean, eta maila sozial guztietara hedatu zenean. Ezaugarri jakin batzuek markatu zuten bilakaera hori. Independentzia Gerrak geldiarazi egin zituen aisialdi-tokiak hobetzeko ekimenak. Berriz jarri ziren martxan 20. eta 30. hamarkadetan, eta Karlistaldiaren garaian (1.836-1.839) gelditu egin ziren ostera. Hamarkada Moderatuan (1.843-1.853) zehar sustatu egin ziren, eta, horretarako, desamortizazioetatik eskuratutako espazio ugari egokitu ziren, eta gizarteko maila altuenei zuzendutakoak luxuz apaindu. Biurteko Aurrerakoiaren (1.854-56) ondoren, modernizatzen hasi ziren, eta aurrerapen teknikoak sartu ziren horietan; izan ere, aurrerapen haiek ugaldu egin ziren mendearen azkeneko laurdenetik aurrera. Seiurteko Demokratikoaz (1.868-1.874) geroztik, josteta- eta soziabilitate-modu askotarikoak zabaldu ziren maila sozial guztietan. Alfontsotar Berrezarpenean zehar luxuarekiko gustua areagotu zen, eta diru-kopuru handiak gastatzen zituzten aisialdi-espazioak handikeriaz apaintzeko.

Ez dago monografiarik edo azterketa osorik mende horretako aisialdi-modu askotarikoen gainean; hori horrela, garrantzitsuenak laburtzen eta horietan gertatutako aldaketak azaltzen saiatuko gara jarraian.

### Aisialdia auzoan, kalean eta plazan

XIX. mendearen hasieran, hiriko aisialdiaren eta landakoaren arteko distantzia are eta handiagoa zen urbanizazio-mailak gora egin ahala. Probintzia-buruetan, aisialdia esklusibistago bihurtu ohi zen moldatzeko moduei, kokatzen zen tokiei eta bere fintasun *haizeei* zegokienez. Distantzia hori ezagun zen mendearen erdialdeaz geroztik,

en los lugares donde se ubicaba y en sus *aires* de finura. Aquella distancia quedaba consagrada desde mediados de siglo y aumentaría conforme avanzase la centuria[1].

La calle era uno de los principales escaparates sociales. Desde inicios hasta mediados de siglo, las zonas por donde pasear estaban radicalmente diferenciadas en función de los estratos sociales. Cuando las clases menesterosas transitaban por donde las pudientes, lo hacían a diferentes horas y de camino a su trabajo. La vía más amplia, majestuosa y de abolengo, normalmente denominada *el salón*, servía para los paseos ritualizados de la flor y nata de la sociedad. Los grupos elevados salían para verse, saludarse, encontrarse con la conquista deseada o simplemente recoger material de primera mano para la crítica de la tertulia nocturna. Conforme avanzase la centuria, las clases medias también participarían de esa forma de esparcimiento, tomando aire fresco y paseándose al sol ejercitando los músculos, según recomendaban los médicos higienistas por sus propiedades benéficas. Tales presupuestos pronto se dejarían de lado siguiendo a las clases pudientes, porque se salía para ver y ser visto, aunque fuese en paseos a la sombra o en los húmedos soportales de plazas de ciudades del norte en pleno invierno. A mediados de siglo se acondicionaron espacios propios de la burguesía, como el *espolón* o el *boulevard*, donde una hilera de sillas o bancos orientados hacia el centro del paseo jalonaban el camino de las miradas que iban a examinar a los paseantes[2]. Poco a poco, las estructuras de hierro fueron tomando su primacía en zonas de esparcimiento; calles, mercados y parques se adornaban con bancos, marquesinas, kioscos de música, pajareras, invernaderos o las barcas del lago.

La calle, la corrala y el patio de vecinos eran espacios cotidianos de la sociabilidad popular donde entretenerse, charlar, difundir noticias y rumores. Sobre la calle y con vistas a ella, el balcón era otro espacio privilegiado, igual que el acristalado *mirador*, tan propio de la cultura burguesa, que desde el último tercio del siglo XIX se reprodujo en casi todas las provincias. De forma cotidiana, desde allí se conversaba, se cotilleaba o se intercambiaban mensajes románticos. De forma extraordinaria, se podía contemplar a los feriantes, escuchar a los músicos –a quienes se tiraba propina desde arriba-, contemplar desfiles, procesiones,

(1) Véanse las aportaciones empleadas en todo este estudio, tomadas de: Jacques MAURICE; Marie-Claude LECUYER; Michel RALLE; Jean-Louis GUEREÑA; Gerard BREY y Manuel MORALES, en: *Estudios de Historia Social. La sociabilidad en la España Contemporánea*, nº 50-51 (1989); pp. 133-305.

(2) URÍA, Jorge. *Una historia social del ocio*, Asturias 1898-1914. Oviedo: UGT, 1996; pp. 38-43.

eta areagotu egin zen mendeak aurrera egin ahala[1].

Erakusleiho sozial nagusietako bat zen kalea. Mendearen hasieratik erdialdera arte, pasealekuak guztiz desberdinduta zeuden estratu sozialen arabera. Klase behartsuak dirudunak pasatzen ziren lekutik pasatzen baziren, ordu desberdinetan eta lanera bidean pasatzen ziren. Bide zabalenak, dotoreenak eta leinukoak (gaztelераz *"salón"* deitzen zitzaien normalean), gizarteko gaina eta lorearen erritu-paseoetarako erabiltzen ziren. Maila altuko taldeak elkar ikusteko eta agurtzeko irteten ziren, edo konkistatu nahi zutenarekin topo egiteko, edo, besterik gabe, gaueko tertuliako kritikarako lehen eskuko materiala biltzeko. Mendeak aurrera egin ahala, erdi-mailako klaseek ere parte hartu zuten aisialdi-modu horretan, haize freskoa hartuz, eta eguzkitan paseatuz giharrak lantzeko; izan ere, hala gomendatzen zuten mediku higienistek, mesedegarri zela eta. Klase dirudunei jarraiki, ez zuten denbora luzez iraun premisa horiek, ikusteko eta ikusia izateko irteten baitzen jendea, nahiz eta itzalpeko paseoetan izan, edo iparraldeko hirietako plazetako arkupe hezeetan negu-neguan. Mendearen erdialdera, burgesiarentzako espazioak egokitu ziren, hala nola, *kai-muturrak* edo *bulebarrak*; horietan, paseoaren erdialderantz zuzendutako aulki-errenkadak edo bankuak jartzen ziren, horietatik begiradaz aztertu ahal izateko paseatzen zebiltzanak[2]. Pixkanaka, burdinazko egiturak nagusitzen hasi ziren aisialdi-lekuetan; bankuak, markesinak, musika-kioskoak, txoritegiak, negutegiak edo lakuko txalupak jartzen ziren kaleetan, merkatuetan eta parkeetan.

Kalea, antzokia eta bizilagunen patioa ohiko espazioak ziren herritarren soziabilitaterako, eta bertan jostatzen ziren, hitz egiten zuten eta berriak eta zurrumurruak zabaltzen zituzten. Kalearen gainean, eta kalera bistak zituela, balkoia ere espazio pribilegiatua zen, kristalezko *begiratokiaren* antzera; ohikoak ziren horiek kultura burgesean, eta XIX. mendearen azkeneko herenaz geroztik ia probintzia guztietara zabaldu ziren. Haietatik hitz egiten zen, esamesaka aritzen ziren edo mezu erromantikoak bidaltzen zituzten. Noizbehinka, ferietako salerosleak ikus zitezkeen, eta musikariak entzun -horiei eskupekoa botatzen zitzaien goitik-, edo desfileak, prozesioak, herriko festak, kaleko iskanbilak edo bertako bizia, besterik gabe, ikus zitezkeen.

(1) Ikus azterketa honetan erabilitako ekarpenak, honako lan honetatik hartutakoak: Jacques MAURICE; Marie-Claude LECUYER; Michel RALLE; Jean-Louis GUEREÑA; Gerard BREY eta Manuel MORALES, honakoan: *Estudios de Historia Social. La sociabilidad en la España Contemporánea*, 50.-51. zenb. (1989); 133.-305. or.

(2) URÍA, Jorge. *Una historia social del ocio*, Asturias 1.898-1.914. Oviedo: UGT, 1996; 38.-43. or.



06. Balcones en Vitoria / Balkoiak Gasteizen

fiestas locales, algaradas callejeras o simplemente la vida que pasaba a sus pies. Su ubicación era fundamental.

Al comenzar el siglo XIX, algunos balcones que daban a la corrala o la plaza mayor donde se hacían espectáculos, seguían reservándose para las clases privilegiadas. Además, resultaban un lugar de señalamiento y distinción social, no sólo por su arquitectura y adornos, sino por las colgaduras sacadas con motivo de las fiestas religiosas o civiles, tan promocionadas en esta centuria por motivos regios y políticos(3).

## Del ocio en la plaza al espacio especfico:circo, toros yotros espectáulos

Las plazas mayores eran el espacio preferido para las actuaciones en el medio rural y urbano, donde acudían titiriteros y músicos con instrumentos varios. Eran habituales los romances de ciego, cuyo pliego de cordel reflejaba las esce-

(3) En ellas se declaraban con bando unos días festivos, se decoraba la ciudad con arquitectura efímera, se iluminaban las calles y se hacían fuegos de artificio. Danièle BUSSY; Jean-Louis GUEREÑA; Michel RALLE (Coords). *Fêtes, sociabilités, politique dans l'Espagne contemporaine. Bulletin d'Historie Contemporaine de l'Espagne.* CNRS, nº 30-31 (1999-2000).

Funtsezkoa zen haien kokapena. XIX. mendearen hasieran, balkoi batzuek antzokira ematen zuten, edo ikuskizunak egiten ziren plaza nagusira; balkoi haiek klase pribilegiatuentzat gordetzen ziren. Gainera, sozialki seinalatzeko eta bereizteko leku ziren; ez beren arkitekturagatik eta apaingarriengatik bakarrik, baita festa erlijiosoak edo zibilak zirela eta ateratzen ziren oihal zintzilikariengatik ere; haiek, hain zuzen ere, oso ezagunak ziren mende hartan arrazoi erlijiosoak edo politikoak zirela eta(3).

## Plazako aisialditik espazio espezifikora:zirkoa, zezenketak eta beste ikuskizun batzuk

Hirian eta landan, plaza nagusiak ziren ikuskizunetarako toki gustukoenak; haietara bertaratzen ziren titiriteroak eta musikariak zenbait musika-tresnekin. Itsuen erromantzeak ohikoak ziren; kontatzen zituzten eszenak irudikatzen zituzten kordeleko koadernoan. Txotxongilodun

(3) Horietan, jaiegun batzuk aitortzen ziren bando gisa, hiria arkitektura iraungikorrez apaintzen zen, kaleak argiztatzen ziren eta artifizio-suak egiten ziren. Danièle BUSSY; Jean-Louis GUEREÑA; Michel RALLE (Koord.). *Fêtes, sociabilités, politique dans l'Espagne contemporaine. Bulletin d'Historie Contemporaine de l'Espagne.* CNRS, 30.-31. zenb. (1.999-2.000).

nas que relataban, las cuales se acompañaban de pequeñas representaciones cuando contaban con un lazarillo con títeres[4]. Asimismo, los *cómicos de la legua*, actores itinerantes que recorrían las provincias en sus carretas trashumantes, con grupos de diferentes tamaños (bululú, ñaque, gangarilla, cambaleo, garnacha, bojiganga, farándula y compañía). Con la ley de teatros de 1799 y tras la progresiva mejora y profusión de escenarios en toda España, este fenómeno tenderá a ir quedando un poco relegado, parte del cual se integraría en los circuitos de los teatros fijos[5].

Algo similar sucederá con otras actuaciones itinerantes que a principios de siglo se representaban en las plazas principales. En época de las ferias locales aparecían barracas de circo que solían establecerse en las afueras de la ciudad. Desde 1830 se irían asentando en edificios en el extrarradio: en circos, teatros o hipódromos. A partir de 1850, los circos estables se implantaron en toda España. En ellos se reproducía un compendio del mundo. Se alternaban espectáculos ecuestres (que antes habían estado restringidos a la aristocracia) con desfiles y actuaciones de animales exóticos o habilidosos. Se hacían desde muestras de experimentos científicos hasta representaciones de batallas, en las cuales no era extraño que quien personificase a Napoleón saliese en el siguiente número haciendo un juego de acrobacia. A tales actuaciones se unía una especie de exhibición universal de la capacidad física humana: domadores, malabares, prestidigitadores, equilibristas, saltimbanquis, bailarines de cuerda, trapecistas, polichinelas, figuras de cera, hombres incombustibles, enanos, gigantes, mujeres barbudas y todo tipo humano fuera de lo normal, con cierta predilección por las deformaciones físicas o fingidas. Solían terminar, al igual que los toros, con fuegos de artificio[6].

En las plazas de los pueblos y ciudades se desenvolvían otros divertimentos tradicionales, como toros, peleas de gallos o perros. Se acompañaban de otras actuaciones, de bandas de música o de apuestas, pues la sociabilidad decimonónica fue muy amiga del azar, el envite y la jugada. Las

(4) Asociadas a la mendicidad, se intentaron prohibir desde finales del siglo XIX, lo cual evitó a principios de la centuria Antonio Zozaya: ZOZAYA MONTES, María. "Trayectoria de un intelectual olvidado: Antonio Zozaya y You", *Jaime Ferrán*, nº 19 (Madrid, 2000); p. 216. Sobre las campañas: GARVÍA SOTO, Roberto. *El problema de los objetivos en las organizaciones formales.* Madrid: Juan March; pp. 18-22.

(5) COQUARD, Lluís. *Los cómicos de la legua.* Barcelona: CPVA, 1974.

(6) VAREY, J. E. *Títeres, marionetas y otras diversiones populares de 1758 a 1859.* Madrid: IEM, 1959. SIMÓN PALMER, Mª Carmen. "Acróbatas, músicos callejeros, forzudos y seres deformes". *Villa de Madrid. Diversiones del pueblo madrileño en el siglo XIX*, nº 60 (1978-III); pp. 71-74. Agradezco a Leo Basi las explicaciones realizadas sobre el circo, al cual se ha dedicado su familia desde hace varias generaciones. Plasma alguna información al respecto en su blog (www.leobasi.com).

itsumutilik bazegoen, kontakizunak antzezpen txikiz laguntzen ziren[4]. Era berean, *legoaren komikoak* ere ohikoak ziren; kaleetan zehar ibiltzen ziren gurditxo transhumanteetan, tamaina desberdineko taldeetan (talde horien ezaugarrien arabera, honako izen hauek hartzen zituzten gazteleraz: *bululú, ñaque, gangarilla, cambaleo, garnacha, bojiganga, farándula* eta *compañía*). 1.799ko antzokien legearekin, eta Espainian agertokiak pixkana hobetu eta ugaritu zirenean, fenomeno hori atzera geratu zen, eta horren zati bat antzoki finkoen zirkuituan integratu[5].

Mendearen hasieran plaza nagusietan egin ohi ziren beste ikuskizun ibiltari batzuei ere antzeko zerbait gertatu zitzaien. Herriko festen garaian, zirko-barrakak agertu ohi ziren, eta, normalean, hiriaren kanpoaldean ezarri. 1.830az geroztik, kanpoaldeko eraikinetan finkatu ziren: zirkoetan, antzokietan edo hipodromoetan. 1.850az geroztik, zirko egonkorrak ezarri ziren Espainia osoan. Munduaren laburpen bat irudikatzen zen haietan. Zaldi-ikuskizunak (lehen aristokraziara mugatzen zirenak), desfileak eta animalia exotikoen edo abilen ikuskizunak egiten ziren aldizka. Esperimentu zientifikoak eta guduen irudikapenak ere egiten ziren; azken horietan ez zen harritzekoa Napoleonen papera egin zuenak akrobazia-joko bat egitea hurrengo saioan. Emanaldi haiekin batera, gizakien gaitasun fisikoaren erakustaldi unibertsala zirudiena ere egiten zen: hezleak, malabarismoak, eskujokariak, orekariak, saltinbankiak, soka-dantzariak, trapezistak, politxinelak, argizarizko irudiak, gizon erregaitzak, nanoak, erraldoiak, emakume bizardunak eta ezohikoa zen gizaki oro, batez ere desitxuratze fisikoak edo itxurazkoak bazituen. Zezenketen antzera, su artifizialekin amaitzen ziren[6].

Herriko eta hirietako plazetan beste dibertimendu tradizional batzuk ere burutzen ziren, hala nola, zezenketak eta oilarren eta txakurren borrokak. Beste ikuskizun batzuekin batera edo musikariekin egiten ziren, edo apustuak egiten ziren, XIX. mendeko soziabilitatean gustuko baitziren zoria, enbidoak eta jokaldiak. Oilar-borroketan egin ohi ziren

(4) Eskaletasunarekin lotzen ziren, eta, XIX. mende amaieraz geroztik, horiek debekatzeko ahaleginak egin ziren. Antonio Zozayak eragotzi zuen hori mendearen hasieran: ZOZAYA MONTES, Maria. "Trayectoria de un intelectual olvidado: Antonio Zozaya y You", *Jaime Ferrán*, 19. zenb. (Madril, 2000); 216. or. Kanpainei buruz: GARVÍA SOTO, Roberto. *El problema de los objetivos en las organizaciones formales.* Madril: Juan March; 18.-22. or.

(5) COQUARD, Lluís. *Los cómicos de la legua.* Bartzelona: CPVA, 1974.

(6) VAREY, J. E. *Títeres, marionetas y otras diversiones populares de 1758 a 1859.* Madril: IEM, 1.959. SIMÓN PALMER, Mª Carmen. "Acróbatas, músicos callejeros, forzudos y seres deformes". *Villa de Madrid. Diversiones del pueblo madrileño en el siglo XIX*, 60. zenb. (1.978-III); 71.-74. or.Eskerrak eman nahi dizkiot Leo Basiri zirkoari buruz emandako azalpenengatik; bere familiak zirkoan jardun du zenbait belaunaldiz. Horri buruzko informazioren bat aurki daiteke horren blogean (www.leobasi.com).

apuestas eran características de las peleas de gallos, muy típicas en el siglo XIX, que fueron recluyéndose en recintos estables y circos gallísticos[7]. Lo mismo sucedió con las corridas de toros, que en origen habían tenido lugar en plazas y calles principales; lo cual motivó que los cosos iniciales fuesen rectangulares. Las plazas circulares, que aparecieron en 1750, se generalizaron desde 1840 de forma paralela a la difusión de la moderna fórmula capitalista. Si tradicionalmente venían dependiendo de la monarquía o el concejo, y consagraban sus recursos a prácticas benéficas ligadas a celebraciones religiosas, poco a poco su explotación se iría concediendo a pequeños comerciantes y a empresarios que los vinculaban al entretenimiento laico. Las iniciativas fueron multiplicándose en toda España. Desde 1880, el número de cosos y de festejos taurinos crecieron de forma asombrosa, debido a su éxito como negocio y a su popularidad entre el público, que abarcaba desde el pueblo hasta la realeza. Se construyeron en lugares donde no existía apenas tradición, simplemente porque los negociantes las utilizaron como forma de dinamizar la economía local, por su capacidad de atraer forasteros. Cuanto más éxito tenían los toros, más aumentaron sus detractores, quienes se unieron fundando sociedades antitaurinas[8].

## Tascas, tabernas y cafés

La tasca y la taberna fueron los lugares preferidos para la expansión de los grupos menos pudientes. Con un alcohol que aumentaba las calorías de su escasa alimentación, lograban olvidarse unas horas de la dura rutina diaria. Existían diferentes establecimientos habilitados al efecto, no todos registrados ni con licencia: chigres, tascas, tabernas, botillerías, alojerías, despachos de vino improvisados en los alrededores de los centros de trabajo rural, industrial o minero. Allí los trabajadores bebían, hablaban, cantaban y montaban más de una reyerta que favorecía tanto las incómodas visitas de los Cuerpos del Orden como las consecuentes críticas por parte de los grupos moralizadores y otros adoctrinadores del gasto del tiempo y el jornal[9].

(7) JUSTO, Enrique. "Las peleas de gallos"; y SANDE, M. Marcos. "Corridas de gallos", ambas en: *Revista de dialectología y tradiciones populares*, T. XXV (1969); pp. 317-323; y T. VIII (1952); pp. 154-158.

8) SHUBERT, Adrian. *A las cinco de la tarde. Una historia social del toreo*. Ronda: Real Maestranza de Caballería; pp. 5-48.

(9) SIERRA ÁLVAREZ, José. *El obrero Soñado. Ensayo sobre el paternalismo industrial* (Asturias, 1860-1917). Madrid: S. XXI, 1990.

batez ere apustuak; borroka haiek ohikoak ziren oso XIX. mendean, eta barruti egonkorretara eta oilar-zirkoetara bilduz joan ziren[7]. Berdin gertatu zen zezenketekin ere. Haiek, hasiera batean, plaza eta kale nagusietan egiten ziren; horregatik, lehenengo zezen-plazek forma laukizuzena zuten. 1.750ean sortu ziren plaza zirkularrak, eta 1.840tik aurrera zabaldu egin ziren, formula kapitalista modernoa hedatu zen heinean. Hasieran, monarkiaren edo kontseiluaren mende egon ohi ziren, eta irabaziak ospakizun erlijiosoekin lotutako ongintza-jardueretarako erabiltzen zituzten. Baina, pixkanaka, merkatari txikiei eta enpresariei egokitu zitzaien horien ustiapena, eta haiek entretenimendu laikoarekin lotzen zituzten zezenketak. Halako ekimenak ugaritu egin ziren Espainian. 1.880az geroztik, era harrigarrian ugaldu ziren zezen-plazak eta festak, negozio arrastatsua zirelako eta ikusleek oso gustuko zituztelako; askotariko ikusleak bertaratzen ziren, herri xehetik hasi eta erregе-erreginen ahaideetara arte. Halako tradiziorik ia ez zuten lekuetan ere eraiki ziren, negoziatzaileek tokiko ekonomiarako pizgarri gisa erabili zituztelako, kanpotarrak erakartzen zituela eta. Zezenketen arrakastak gora egiten zuen heinean, haien aurka zeuden pertsonen kopuruak ere gora egin zuen, eta zezenketen aurkako elkarteak eratu zituzten[8].

## Ardotegiak, tabernak eta kafetegiak

Ardotegiak eta tabernak izan ziren talde behartsuenen toki gustukoenak. Beren elikadura urriko kaloriak gehiagotzen zituen alkoholak, eta egunerokotasun gogorra ahanztea lortzen zuten zenbait orduz. Zenbait establezimendu mota zeuden horretarako egokituta, eta horietako batzuk ez zeuden erregistratuta, eta ez zuten lizentziarik: jiragorak, ardotegiak, tabernak, botilategiak, ostatuak, landa-laneko, lan industrialeko edo meategi-laneko zentroen inguruetan bat-batean sortutako ardandegiak.

Haietan, langileek edan egiten zuten, bai eta hitz egin eta abestu ere, eta askotan istiluak sortzen zituzten; ordena-gorputzen bisita eragiten zuen horrek, bai eta kritikak ere, talde moralizatzaileengandik eta denboraren eta jornalaren gastuaren beste doktrina-emaile

(7) JUSTO, Enrique. "Las peleas de gallos"; eta SANDE, M. Marcos. "Corridas de gallos", biak ere, honako lan honetan: *Revista de dialectología y tradiciones populares*, XXV. T. (1.969); 317.-323. or.; eta VIII. T. (1.952); 154.-158. or.

(8) SHUBERT, Adrian. *A las cinco de la tarde. Una historia social del toreo*. Ronda: Real Maestranza de Caballería; 5.-48. or.

A principios de siglo se fue difundiendo entre las clases medias un espacio mucho más elegante que la taberna, el café. Apareció en la primera década del siglo y su éxito eclosionó durante el Trienio Liberal (1820-1823), cuando las Sociedades Patrióticas que albergaban estaban en plena efervescencia. Cenáculos de la naciente sociabilidad política y promotores de la opinión pública, los cafés sirvieron como instrumentos del Liberalismo[10]. Los parroquianos pasaban largas horas leyendo periódicos o escuchando versos, conversando y haciendo tertulia literaria o política. Entre 1836 y 1856 los cafés se fueron transformando y modernizando. Se establecieron en la planta baja del inmueble –ya no en la primera-, y se decoraron con cierto lujo y con ornamentos, espejos, cornucopias, cuadros, mesas de mármol y hierro colado. Se hacían la competencia unos a otros, emulando en especial a los cafés parisinos[11]. Algunos instalaron un gabinete de lectura o el juego del billar. Otros introdujeron entretenimientos en función del público y clientela que pretendían atraer: espectáculos de magia, música, varietés y un largo etcétera propio del café cantante con el acostumbrado piano de pared. Si a principios del siglo XIX atendía el dueño, algún camarero uniformado y un mozo de recados, desde el último tercio fue común que sirvieran camareras, quienes junto a las cantantes atraían a buena parte del público masculino, estableciéndose entre ellos a menudo una prostitución solapada[12].

## Reuniones, tertulias, recepciones

En las casas de extracción popular o artesana –no industrial- el tiempo de ocio y de trabajo permanecía muy unido, entre la casa, el taller y el lavadero. Por lo cual, la visita de un vecino o la llegada de un pariente podían suponer un rato de recreo. Entre las formas de reunión familiar y vecinal cabría destacar la velada nocturna en el hogar o en el patio, acompañada de la lectura en alta voz, un vaso de vino y algún instrumento musical. Los sectores cultos de las clases medias hacían tertulias en las casas, botillerías, dispensarios, trastiendas de librerías o farmacias. Allí, cura, médico y concejal trataban junto a otros miembros de las profesiones liberales sobre los problemas cotidianos o sobre la política, que tantas conversaciones monopolizó durante el siglo XIX.

(10) GIL NOVALES, Alberto. *El Trienio Liberal.* Madrid: SXXI, 1980; pp. 10-12; 71-77; y 118-119.

(11) VELASCO ZAZO, Antonio. *Florilegio de los cafés.* Madrid: Tipografía Clásica Española, SXXI, 1943.

(12) GUEREÑA, Jean-Louis. "*De Historia prostitutionis.* La prostitución en la España Contemporánea", *Ayer*, nº 25 (1997); pp. 35-72.

batzuengandik[9].

Mendearen hasieran, taberna baino dotoreago zen espazio bat egin zen ezagun klase ertainen artean, kafetegia, hain zuzen ere. Mendearen lehenengo hamarkadan sortu ziren, eta arrakasta handia izan zuten Hirurteko Liberalean (1.820-1.823) zehar; garai hartan, haietan biltzen ziren Elkarte Abertzaleak irakinaldian zeuden. Soziabilitate politiko hasiberriaren eta iritzi publikoa sustatzen zutenen bilerak ziren, eta, ondorioz, kafetegiak tresna eraginkor izan ziren Liberalismoarentzat[10]. Bezeroak ordu luzez egoten ziren haietan, egunkariak irakurtzen, bertsoak entzuten, hizketan eta tertulia literarioak edo politikoak egiten.



07. Café / Kafetegia

1.836 eta 1.856 artean, kafetegiak aldatu eta modernizatu egin ziren. Eraikinaren beheko solairuan ezarri ziren -ez lehenengo solairuan lehenago bezala-, eta luxuz apaindu; apaingarriak, ispiluak, kornukopiak, koadroak, marmolezko mahaiak eta burdinurtua erabiltzen ziren horretarako. Lehia sortu zen horien artean, eta Parisko kafetegiak imitatzen zituzten batez ere[11]. Batzuetan, irakurketa-kabineteak edo billar-jokoa jarri zituzten. Beste entretenimendu mota batzuk ere eskaintzen zituzten beste batzuetan, erakarri nahi zituzten ikusleen eta bezeroen arabera: magia-

(9) SIERRA ÁLVAREZ, José. *El obrero Soñado. Ensayo sobre el paternalismo industrial (Asturias, 1.860-1.917).* Madril: S. XXI, 1.990.

(10) GIL NOVALES, Alberto. *El Trienio Liberal.* Madril: SXXI, 1.980; 10.-12. or.; 71.-77. or.; eta 118.-119. or.

(11) VELASCO ZAZO, Antonio. *Florilegio de los cafés.* Madril: Tipografía Clásica Española, SXXI, 1.943.

Los grupos pudientes estipulaban tertulias en sus casas, que a principios de siglo perpetuaban el modelo difundido en la época de la Ilustración, basado en que una aristócrata reunía un círculo de *snobs*, intelectuales y paniaguados que trataban sobre múltiples temas artísticos y culturales. También se hacían recepciones en las villas de campo, que siguieron celebrándose durante todo el siglo. Tuvieron una gran pujanza entre 1800 y 1840, cuando, siguiendo la moda francesa, en las *quintas* o palacetes de campo se creó un lugar de cita obligado para la flor y nata de la sociedad, especialmente en las capitales de provincia. Al amparo de la aristocracia o de la burguesía enriquecida –también ennoblecida-, se congregaba la sociedad elegante y política en torno a la tertulia, la fiesta o el baile. Esas *quintas* eran lujosas villas ornamentadas con historiados jardines, algún laberinto donde esconderse, una arquitectura decorada con trampantojos, fuentes, estanques y cursos de agua efectistas en torno a un palacete atendido por numerosos criados. A su alrededor colocaban ciertos aderezos que podían indicar bien su modernidad (un autómata), bien su vocación bucólica (un pastor con su rebaño) o bien su piedad (un ermitaño en su cueva)[13]. Estas quintas continuaron existiendo entre la alta burguesía, multiplicándose por toda España en las medianías de la Restauración Alfonsina, por lo que a menudo contaban con descarada orientación política, llegando alguna a imitar en su estructura al Congreso de los Diputados[14].

Las visitas fueron una costumbre muy común entre la burguesía y la aristocracia durante el siglo XIX. Aparte de las visitas obligadas por las onomásticas, las familias más señaladas estipulaban un día para recibir a la sociedad. La anfitriona competía con el resto de las señoras por el prestigio simbólico que le confiriera el reunir a la concurrencia más prestigiosa, importar una moda o una música, ofrecer las bebidas más exquisitas o los dulces más finos, cuyas sobras se llevaban para quienes no hubiesen asistido. El lujo y la amplitud de sus espacios aumentaban conforme ascendiesen en la escala social. Los más acaudalados celebraban selectas recepciones en los mejores salones de sus palacetes. La mediana burguesía emulaba estas prácticas, pero cuando no contaba con medios equivalentes se traducía en el *quiero y no puedo*, y recibía en la salita que de otro modo nunca se pisaba, donde se acumulaban los mejores objetos para contemplación de los invitados[15].

(13) ATIENZA, Ignacio, *Aristocracia, poder y riqueza en la España Moderna. La Casa de Osuna, siglos XV-XIX*. Madrid: S.XXI, 1987, pp. 107- 108

(14) RAMOS FRENDO, Eva M. *Amalia Heredia Livermore, marquesa de Casa-Loring*. Málaga: Universidad, 2001; pp. 188 y ss.

(15) URÍA, Jorge. "Los lugares de la sociabilidad. Espacios, costumbre y conflicto social", en: *Historia Social y Ciencias Sociales*. Lérida: Milenio, 2001; pp. 201-224.

ikuskizunak, musika, *"varietés"* estiloko ikuskizunak eta *kafetegi abeslariaren* berezko beste asko, ohiko hormako pianoa barne. XIX. mendearen hasieran, jabea, uniformedun zerbitzariren bat eta mandatu-mutil bat arduratu ohi ziren harrera emateaz; mendearen azken herenaz geroztik, berriz, emakumezko zerbitzariek egiten zuten lan hori normalean, eta haiek, abeslariekin batera, gizonezko ikusle ugari erakartzen zituzten. Askotan, ezkutuko prostituzioa ezartzen zen haien artean[12].

## Bilerak, tertuliak eta jaiak

Herritar- edo artisau-jatorriko etxeetan -ez jatorri industrialekoetan- aisialdia eta lana oso lotuta zeuden, etxean, tailerrean eta garbitegian. Horregatik, atseden-une bat sor zitekeen bizilagunen bat bisitan etortzen zenean, edo sendikoren bat iristean. Familien eta bizilagunen biltzeko moduen artean, etxeko edo patioko gau-jaiak ziren nabarmenenak; haietan irakurketak egiten ziren ahots ozenez, ardo pixka batez eta musika-tresnaren batez lagunduta. Klase ertainetako sektore kultuek tertuliak egiten zituzten beren etxeetan, botilategietan, anbulatorioetan, denda-osteetan edo farmazietan. Haietan, apaizak, medikuak eta zinegotziak ogibide liberaletako beste kide batzuekin hitz egiten zuten eguneroko arazoei edo politikari buruz; azken horrek XIX. mendeko elkarrizketa ugari monopolizatu zituen.

Talde dirudunek tertuliak adosten zituzten beren etxeetan. Mendearen hasieran, Ilustrazioaren garaian zabaldutako ereduari jarraitzen zioten, hau da: aristokrata batek zenbait *snob* eta intelektual biltzen zituen, bai eta bere mesedea zuten beste pertsona batzuk ere, eta gai artistikoei eta kulturalei buruz hitz egiten zuten. Landako etxeetan ere jaiak antolatzen zituzten, eta mende osoan zehar ospatu zituzten haiek. 1.800 eta 1.840 artean indar handia hartu zuten; garai horretan, Frantziako modari jarraiki, derrigorrezkoa zen gizarteko gaina eta lorearentzat landetxeetara edo landako jauregitxoetara bisita egitea, probintzietako hiriburuetan batez ere. Aristokraziaren edo aberastutako burgesiaren –bai eta nobletutakoa ere- babesera, gizarte dotorea eta politikoa biltzen zen, tertulian, festetan edo dantzan jarduteko.

Landetxe haiek luxuzko etxeak ziren, eta ongi edertuta zeuden, historiadun lorategiekin, ezkutatzeko aukera ematen zuen labirintoren batekin, efektu optikoekin apaindutako arkitekturarekin, iturriekin, urmaelekin eta animoan eragiten zuten ur-korronteekin, zerbitzari ugarik zaindutako jauregitxo

(12) GUEREÑA, Jean-Louis. *"De Historia prostitutionis.* La prostitución en la España Contemporánea", *Ayer*, 25. zenb. (1.997); 35.-72. or.



08. **Tertulia burguesa**/ Burgesen tertulia

Había varios pasatiempos propios de estas reuniones, como juegos de ingenio, prendas, acertijos, tablas, damas, ajedrez y cartas, entre las cuales destacaban el tresillo, el *ecarté* y el poker. Gozaron de gran popularidad las *aleluyas y estampas populares*, que contenían una imagen y un pequeño texto sobre un suceso bélico, heroico, espectacular, adulador, satírico o caricaturizador. Servían para entretener y para desarrollar, mediante el relato, una cultura popular mayormente oral[16]. Representaban a un protagonista de actualidad, del gobierno, el ejército, la realeza o los *tipos*. Éstos eran personajes populares caracterizados según sus oficios y procedencias. Nodrizas, aguadores, bandidos, toreros, sevillanas, aragoneses y otros cuyos perfiles se extenderían con ayuda del movimiento romántico entre los grabados, la literatura y la prensa, dejando una honda huella en el teatro y la zarzuela.

En las recepciones también se hacían actuaciones. Se escenificaban *cuadros vivos*, en donde los jóvenes de la alta sociedad se ponían atuendos de época para encarnar conocidas obras de artistas clásicos[17]. También se representaban piezas breves. Los prohombres adinerados poseían un escenario donde hacer conciertos o teatro; pero cuando no contaban con uno propio, cualquier sala servía de escenario. También existían los teatros de casas de vecinos. Las obras a veces se encargaban a una pequeña compañía, a veces se representaban entre los amigos, y a

(16) ARAUJO SÁNCHEZ, Ceferino. *Recuerdos de algunas estampas populares españolas de fines del siglo pasado y una parte de éste.* [Facsímil del Manuscrito, 1894]; Madrid: SCC-FLG, 2008.

(17) RAMOS FRENDO, Eva M. *Amalia Heredia Livermore...* ; pp. 188 y ss.

baten inguruan. Haien inguruan zenbait edergailu ipintzen zituzten, beren modernitatearen (automata bat), beren bokazio bukolikoaren (artzain bat bere artaldearekin), edo beren errukiaren (ermitau bat bere kobazuloaren sarreran) adierazgarri gisa[13]. Landetxe haiek existitzen jarraitu zuten goi-mailako burgesiaren artean, eta ugaritu egin ziren Espainia osoan Alfontsotar Berrezarpenaren erdialdera. Askotan, joera politiko garbia zuten, eta batzuek Diputatuen Kongresuaren egitura ere imitatzen zuten[14].

XIX. mendean zehar, burgesiaren eta aristokraziaren artean zabaldutako ohitura zen haiek bisitatzea. Onomastikak agindutako egunez gain, familia nabarmenenek egun bat ezartzen zuten gizarteari harrera egiteko. Anfitrioia gainerako emakumeekin lehiatzen zen ospe sinbolikoa bereganatzeko, eta, horretarako, honako hauek burutzen saiatuko zen: entzute handieneko jendea biltzen, moda bat edo musika bat inportatzen edo edari bikainena eta gozo finenak eskaintzen (bertaratu ez zirenei eramaten zitzaizkien soberakinak). Zenbat eta altuago egon eskala sozialean, orduan eta luxuzkoagoak eta handiagoak ziren espazioak. Dirudunenek aparteko harrerak antolatzen zituzten beren jauregitxoetako gela hoberenetan. Erdi-mailako burgesiak horien mailara iritsi nahi zuen, baina baliabide berak ez zituenez, askotan nahi baina ezin izaten zen; horrelakoetan, bestela sekula erabiltzen ez zen gelatxoan egiten ziren harrerak, eta bertan biltzen ziren objektu hoberenak gonbidatuek ikus zitzaten[15].

Bilera mota horietan, ohiko denbora-pasa batzuk zeuden, hala nola, adimen-jokoak, prendak, asmakizunak, taulak, damak, xakea eta kartak; karta-jokoei zegokienez, *"tresillo"* eta *"ecarté"* izeneko jokoak eta pokerra ziren ohikoenak. *Aleluiak eta herri-estanpak* ere asko zabaldu ziren; gertakari beliko, heroiko, ikusgarri, lausengari, satiriko edo karikaturagile bati buruzko imajina bat eta testu txiki bat jasotzen zituzten haiek. Entretenitzeko eta, kontakizunen bitartez, batez ere ahozkoa zen herri-kultura garatzeko balio zuten[16]. Garaiko pertsonaia bat irudikatzen zuten haiek, gobernukoa, armadakoa, errege-familiakoa edo *tipoetakoa.*

(13) ATIENZA, Ignacio, *Aristocracia, poder y riqueza en la España Moderna. La Casa de Osuna, siglos XV-XIX.* Madril: S.XXI, 1987, 107.-108. or.

(14) RAMOS FRENDO, Eva M. *Amalia Heredia Livermore, marquesa de Casa-Loring.* Malaga: Universidad, 2.001; 188. or. eta hurrengoak

(15) URÍA, JORGE. "Los lugares de la sociabilidad. Espacios, costumbre y conflicto social", honakoan: *Historia Social y Ciencias Sociales.* Lerida: Milenio, 2.001; 201.-224. or.

(16) ARAUJO SÁNCHEZ, Ceferino. Recuerdos de algunas estampas populares españolas de fines del siglo pasado y una parte de éste. [Facsímil del Manuscrito, 1.894]; Madril: SCC-FLG, 2.008.

veces las improvisaban los invitados. Como las *charadas*, donde aquellos eran sucesivamente actores y espectadores de una acción teatral tan inventada como la vestimenta, procedente de ropas y pañuelos viejos que la anfitriona repartía y los visitantes colocaban conforme a los dictados de su imaginación[18].

## El teatro y la ópera

A principios de la centuria numerosas representaciones teatrales se escenificaban en espacios informales que estaban escasamente acondicionados al efecto: solares, terrenos de juego de pelota y otros sitios polivalentes que a lo largo de la centuria se irían cerrando, cubriendo y disponiendo como escenarios fijos. Además, existían salas de teatro, pero sus medios materiales eran insuficientes: bancos sin respaldo, sillas austeras, iluminación con candilejas de aceite y exigua calefacción con braseros de sartén. Esa ambientación casaba con la actitud del público, que comía, bebía, fumaba, silbaba, quitaba la silla a su propietario o tiraba hortalizas a los actores si no le gustaba la obra. Aquellas condiciones se relacionaban con la forma de explotación de los teatros. Hasta los años treinta pertenecían a los ayuntamientos y las corporaciones tradicionales, que tenían el privilegio de alquilárselo a compañías, cuyos beneficios dejaban para obras de caridad y beneficencia. Con la llegada del Liberalismo se comenzaron a concebir como una empresa más del capitalismo. En este proceso de mercantilización de los escenarios predominaron dos tendencias, la que pretendía su libre explotación privada y la que abogaba por su protección pública. Esta línea sentaría las bases ideológicas del proceso de nacionalización del teatro, que intentaría reorientar las facetas de comunicación, instrucción y propaganda que tradicionalmente tenía asignado.

Tras la finalización de la Guerra Carlista, y con el apoyo político moderado de los espacios del *gran mundo*, entre 1840 y 1850 se impulsó el progreso de los teatros. Les acompañó una legislación que procuraba la mejora de los sueldos y condiciones profesionales de autores, actores, cantantes, ayudantes, avisadores y apuntadores. Se perfeccionaron las instalaciones de las localidades, se establecieron butacas y palcos cuyos propietarios aderezaban con cuadros o cortinajes. Se introdujeron adelantos en el apara-

(18) ALAS, Leopoldo. *La Regenta*. Barcelona: Orbis, 1982; T. I, pp. 148-337. MARTIN-FUGGIER, Anne M. "Los ritos de la vida privada burguesa", en: ARIÈS, Philippe; DUBY, Georges. *Historia de la vida privada*. Madrid: Taurus, 1989; T. IV, pp. 220-221; y 199-268.

Beren ogibidearen eta jatorriaren baitan karakterizatutako pertsonaia ezagunak ziren *tipoak*. Inudeen, urketarien, bidelapurren, toreatzaileen, sevillarren, aragoiarren eta beste batzuen profilak zabaldu ziren grabatuetan, literaturan eta prentsan mugimendu erromantikoaren laguntzaz, eta eragin handia izan zuten antzerkian eta zarzuelan.

Harrera haietan ikuskizunak ere egiten ziren. Koadro bizidunak eszenifikatzen zituzten; haietan, gizarteko maila altuetako gazteek garaiko jantziak janzten zituzten artista klasikoen lan ezagunak antzezteko[17]. Antzezlan motzak ere egiten zituzten. Gizon handi dirudunek agertokiak zituzten kontzertuak edo antzezlanak egiteko; horrelakorik ez zeukatenean, edozein gela bihurtzen zuten agertoki. Bizilagunen etxeetako antzokiak ere bazeuden. Batzuetan, konpainia bati egiten zitzaion antzezlana egiteko enkargua, beste batzuetan, lagunen artean egiten zen, eta, beste batzuetan, gonbidatuek antzezten zuten bat-batean. Gazteleraz *"charada"* gisa ezagutzen zirenetan, adibidez, gonbidatuak aktore eta ikusle bihurtzen ziren asmatutako antzerki batean; janzkera ere asmatu egiten zuten, beraiei iruditzen zitzaien eran jartzen baitzituzten gonbidatuek anfitrioiak banatutako arropa eta zapi zaharrak[18].

## Antzerkia eta opera

Mendearen hasieran, antzezlan ugari egiten zituzten horretarako egokitutako espazio informaletan; mendeak aurrera egin ahala, orubeak, pilota-jokorako terrenoak eta antzeko beste toki batzuk, itxi, estali eta egokitu egin zituzten agertoki finko gisa. Gainera, antzokiak ere bazeuden, baina ez zeukaten behar adina baliabide material:

bizkarrik gabeko bankuak, luxurik gabeko aulkiak, oliozko aurreargien bidezko argiztapena eta sutontzien bidezko berokuntza urria.

Giropen hori bat zetorren ikusleen jarrerarekin; jan, edan, erre eta txistu egiten zuten bertan, aulkia kentzen zioten horren jabeari eta barazkiak botatzen zizkieten aktoreei antzezlana gustuko ez bazuten. Antzokien ustiapenmoduarekin lotuta zeuden baldintza haiek. Hogeita hamargarren hamarkadara arte, udalenak edo udalbatzar tradizionalenak ziren; haiek konpainiei alokatzeko pribilejioa zuten, eta irabaziak karitate-lanetarako eta benefizentziarako

(17) RAMOS FRENDO, Eva M. *Amalia Heredia Livermore...* ; 188. or. eta hurrengoak.

(18) ALAS, Leopoldo. *La Regenta*. Bartzelona: Orbis, 1.982; I.T., 148-337. or MARTIN-FUGGIER, Anne M. "Los ritos de la vida privada burguesa", honakoan: ARIÈS, Philippe; DUBY, Georges. *Historia de la vida privada*. Madril: Taurus, 1.989; IV. T., 220.-221. or.; eta 199.-268. or.

to escénico, el telón, los decorados, los efectos sonoros y lumínicos. Las salas se ornamentaron con todo lujo de detalles, escayolas, frescos, quinqués y vistosas lámparas de araña. En ocasiones la iluminación llegó a ser tan fuerte que a duras penas se veía a los actores por el contraste con la luz del escenario[19]. Lo cual se debía a que las clases altas iban a los teatros a verse, exhibirse y reconocerse. De ahí los planos en forma de herradura de planta italiana, que facilitaban la panorámica del resto de localidades y que contaban con asientos con visibilidad nula o muy reducida del escenario. De ahí los registros gráficos donde el público asistente aparecía apuntando con los prismáticos a otros palcos y no a la escena. Así, hasta en el teatro se podía ser un espectador ilusorio, porque el público terminaba convirtiéndose en actor de su propio ocio, de forma que era contemplado y analizado por el resto como si del protagonista de la escena se tratase[20].

Los teatros eran salas polivalentes. Se representaban las clásicas obras dramáticas y líricas del siglo XIX: comedias, sainetes, vodeviles, óperas y zarzuelas. También muchos de los espectáculos mencionados a lo largo de estas páginas, combinados con las obras o alternados en los intermedios: desde bailes, conciertos, *panoramas* o linternas mágicas hasta espectáculos circenses, de magia o electroquímicos.

Respecto a las tendencias artísticas del drama, el teatro estuvo marcado por el costumbrismo, que retrataba *tipos* sociales con gran precisión y se convertiría en el portavoz de la clase social burguesa. En los albores del siglo XIX, el costumbrismo se mezcló con brotes prerrománticos que se asentarían con el drama romántico, cuyo auge sobrevino entre 1820 y 1850, cuando desembocaría en el teatro realista y naturalista. Derivó después hacia el costumbrismo regionalista, el cual, mostrando los signos identitarios de las diferentes zonas del país, pasó sucesivamente por las tendencias localistas, regionalistas y de nacionalismo finisecular.

De los múltiples nombres y géneros representados, entre las obras de breve duración cabría destacar el sainete y el vodevil. El sainete, heredero del entremés, pintaba las costumbres del pueblo llano *con mucha sal* y a veces demasiada socarronería. La versión final era muy parecida al *vaudevil,* pieza jocosa en uno o dos actos con una parte dialogada y otra cantada. Fue importado de Francia, a menudo mediante traducciones de conocidos autores dra-

(19) URÍA, Jorge. *Una historia social del ocio...*; pp. 58-59.

(20) De ahí la frase de *Clarín* refiriéndose a los asistentes al Teatro de Oviedo, donde el propio espectador se convertía en el centro de las miradas del teatro: *El teatro, en el momento en que tú vuelves la cara, te clava los ojos, y cuando el público está más atento a la escena y ella cree que nadie la observa, te clava los gemelos.* ALAS, Leopoldo. La Regenta...; T. I, p. 160. Asimismo, las pp. 337; 343-344.

uzten zituzten. Liberalismoa heldu zenean, aldiz, kapitalismoko enpresa gisa ikusten zituzten. Agertokien merkantilizazioaren prozesu horretan, bi joera nagusi egon ziren; horien ustiapen pribatuaren aldekoa, eta babes-publikoaren aldekoa. Azken ildo horrek ezarri zituen antzerkiaren nazionalizazioaren oinarri ideologikoak; tradizionalki bete izan zituen komunikazio, heziketa eta propaganda funtzioei orientabide berria ematea zuen helburu.

Karlistaldia amaitu ondoren, 1.840 eta 1.850 artean, antzokien aurrerapena sustatu zen *mundu handiko* espazioen laguntza politikoa neurritsuarekin. Legedi berri bat ezarri zuten, egileen, aktoreen, abeslarien, laguntzaileen, ohartarazleen eta hitz-emaileen soldatak eta lan-baldintzak hobetu nahi zituena. Eserlekuetako instalakuntzak hobetu zituzten eta besaulkiak eta palkoak ezarri, eta jabeek koadroekin edo gortinekin apaintzen zituzten. Aurrerapenak egin zituzten gailu eszenikoari, oihalari, dekoratuei, soinu-efektuei eta argi-efektuei zegokienez. Antzokiak apaindu zituzten xehetasun ugarirekin, igeltsuak, freskoak, kinkeak eta armiarma-lanpara ikusgarriak jarriz. Batzuetan, argiztapena gehiegizkoa zen, eta aktoreak ezin ziren ia ikusi, agertokiko argiarekin kontrastea sortzen zelako[19]. Izan ere, klase gorenak elkar ikustera, beren buruak erakustera eta elkar ezagutzera joaten ziren antzokira. Horrek sorrarazi zituen oin italiarreko ferraren formako planoak; gainerako eserlekuak ikusteko aukera ematen zuten haiek, eta, eserleku batzuetatik, agertokia ez zen ia edo batere ikusten.



09. Espectadores de Teatro / Antzokiko ikusleak

Horrek azaltzen du, baita ere, nolatan agertzen diren zenbait erregistro grafikotan ikusleak prismatikoekin

(19) URÍA, JORGE. *Una historia social del ocio...*; 58.-59. or.

máticos españoles, que cobraban más así que creando ellos mismos las obras; en dicho proceso aprendieron aquellas fórmulas teatrales y las adaptaron libremente. Consistían en sátiras de costumbres ligadas a temas de actualidad, cuyas bases coincidían con los ideales de la burguesía: pragmatismo, sentido común, intención moralizadora, importancia otorgada al dinero y a la familia nuclear indivisible[21].

La zarzuela y la ópera fueron algunas de las fórmulas más exitosas del género lírico. En 1799 se había prohibido cantar en otro idioma que no fuera el castellano, aunque sin apenas éxito porque la mayoría de las óperas se componían a semejanza de las italianas y en el idioma de aquel país. La ópera italiana triunfaba a lo largo de toda la centuria, y desde la década de 1850 se representaba en todas las provincias. Estuvo impulsada por la afición de los reyes Borbones y por las preferencias de la alta sociedad. Simbolizaba la máxima encarnación del poder y del prestigio. Allí se continuaba con la tupida red de relaciones tejidas en otros escenarios de la vida social. Era el espacio ideal donde encontrarse con el *gran mundo*, donde lucir la elegancia y el *último grito* de moda. Precisamente, generó el denominado *furor filarmónico*, por el cual las damas adineradas imitaban los vestidos o peinados de sus cantantes favoritas, en las tertulias cantaban arias o cavatinas y competían por las localidades más lujosas en las representaciones operísticas[22].

Desde los albores del siglo XIX se intentó promocionar una ópera española, proyecto que luego se vincularía al propósito de creación de un teatro nacional. Con aquel objetivo, en los años treinta se resucitó un género cercano, la zarzuela, que en 1856 inauguraba su primer teatro en Madrid. Escrita en castellano y con los tipos propios del costumbrismo romántico, pronto se convirtió en un espectáculo para todas las clases sociales. Al gran público le resultaba mucho más cercano que la ópera, porque se incluían ritmos de músicas regionales y los personajes eran bastante cercanos, reales y hablaban un idioma que comprendía, aunque en ocasiones se abusó del ceceo con los tipos andaluces o la chulapería madrileña, lo cual motivó tanto su crítica como la creación de una zarzuela con tipos procedentes del resto de provincias[23]. Pronto apareció otra

((21) Sobre todo ello remito a las investigaciones de Mª Pilar ESPÍN, Ignacio GIL-DÍEZ, Ignacio IÑARREA, J. Miguel DELGADO Y Juan AGUILERA, en: Miguel Ángel MURO (Cord.). *II Jornadas Bretonianas. La obra de Manuel Bretón de los Herreros.* Logroño: IER, 2000; pp. 21-140.

(22) ALIER, Roger. *El gran libro del Liceu.* Barcelona: Liceu, 1999. MARTÍNEZ IBÁÑEZ, Antonia. *El Teatro Real en la época de Isabel II.* Madrid: CSIC-IEM, 1993.

(23) ALIER, Roger. *La zarzuela.* Barcelona: Ma Non Troppo, 2002.

beste palko batzuetara begira, agertokira begira egon beharrean. Hala, antzokian ere iruzurrezko ikusle izateko aukera zegoen, ikusleak bihurtzen baitziren beren aisialdi propioko aktore, eta gainerakoek eszenako protagonista bailitzan begiratzen eta aztertzen baitzieten[20].

Antzokiek gauza askotarako balio zuten. XIX. mendeko antzezlan dramatiko eta liriko klasikoak antzezten zituzten haietan: komediak, saineteak, *Vaudebilleak*, operak eta zarzuelak. Orri hauetan aipatutako ikuskizunetako asko ere egiten zituzten, antzezlanekin konbinatuta edo atsedenetan: dantzaldiak, kontzertuak, *panoramak*, linterna magikoak, zirko- eta magia-ikuskizunak eta ikuskizun elektrokimikoak.

Dramaren joera artistikoei zegokienez, kostunbrismoaren eraginpean egon zen antzerkia; hark zehaztasun handiz islatzen zituen *tipo sozialak*, eta klase sozial burgesaren bozeramaile izan zen. XIX. mendearen hasieran, izpi prerromantikoekin nahastu zen kostunbrismoa; haiek finkatu egin ziren drama erromantikoarekin, 1.820 eta 1.850 artean gorakada izan baitzuen, eta antzerki errealista eta naturalista sortu ziren azkenean. Beranduago, kostunbrismo erregionalistaren aldera egin zuen; herrialdeko toki desberdinetako identitate-zeinuak erakusten zituen hark, eta zenbait joera izan zituen, hala nola, tokikoak, erregionalistak eta mende amaierako nazionalismoko joerak.

Antzeztutako izen eta genero ugarien artean, sainetea eta vaudevillea ziren nabarmenenak iraupen motzeko lanen artean. Sainetea entremesetik sortu zen, eta herri xehearen ohiturak irudikatzen zituen *gatz askorekin*, eta, batzuetan, burla gehiegirekin. Azken emaitza *vaudevillearen* antzekoa zen; pieza barregarria, ekitaldi batean edo bitan antolatua, elkarrizketa-zati bat eta abestutako beste zati bat zituena. Frantziatik inportatu zen. Askotan, egile dramatiko espainiar ezagunek itzulpenak egiten zituzten, gehiago irabazten baitzuten hala antzezlanak sortuz baino; prozesu hartan, antzerki-formula haiek ikasi zituzten, eta, ondoren, beren erara egokitu. Garaiko gaiekin lotutako ohituren satirak ziren, eta haien oinarriak bat zetozen burgesiaren idealekin: pragmatismoa, sen ona, intentzio moralizatzailea, diruari emandako garrantzia eta familia nuklear zatiezina[21].

Genero lirikoan, zarzuela eta opera izan ziren formula

(20) Horrek azaltzen du *Clarinen* esaldia, Oviedoko Antzokira bertaratuei buruzkoa, ikuslea berak erakartzen baitzituen antzokiko begirada guztiak: *Antzokiak, aurpegia jiratzen duzunean, begiak iltzatzen dizkizu, eta ikuslea en arreta eszenan jarria badago, eta horrek uste badu inork ez diola begiratzen, prismatikoak iltzatzen dizkizu.* ALAS, Leopoldo. La Regenta...; I. T., 160. or.
Baita ere, 337. or eta 343.-344. or.

(21) Batez ere, honakoen ikerketa-lanak aipatuko ditut; Mª Pilar ESPÍN, Ignacio GIL-DÍEZ, Ignacio IÑARREA, J. Miguel DELGADO ETA Juan AGUILERA, honakoan:Miguel Ángel MURO (Koord.). *II Jornadas Bretonianas. La obra de Manuel Bretón de los Herreros.* Logroño: IER, 2.000; 21.-140. or.

fórmula más comercial: el género chico, pequeñas obras de corta duración que se escribían para ser representadas en el *teatro por horas*, lo cual favorecía la oferta y abarataba los costes, ya de por sí bastante más reducidos que la ópera[24].

Entre 1866 y 1872 vino a quitar cierto protagonismo a la zarzuela el teatro de los bufos Arderíus, apellido del empresario que los importó de Francia. Era un género cercano a la zarzuela y la ópera, pero sin su calidad artístico musical, pues los actores no eran cantantes y desafinaban bastante. Sus diálogos, graciosos, socarrones e incluso picantes, fueron atacados reiteradamente por los grupos moralizadores, que lo que más criticaban eran los coros de *suripandas*, jóvenes bailarinas con las piernas al descubierto, que escandalizaban a numerosos sectores conservadores que no por ello dejaban de ir a verlas[25].

## Coros laicos y orfeones

Entre las numerosas formas de sociabilidad musical, destacan los coros y orfeones. Creados a partir de mediados de la centuria, en las décadas de 1860 y 1880 gozaron de gran éxito. Su base social procedía de los grupos de música popular urbana, charangas y rondallas congregadas en pascua, carnaval, fiestas veraniegas o navideñas. Fueron creados como entretenimiento del escaso tiempo libre que tenían los grupos populares de zonas industriales deprimidas, motivo por el cual algunos acapararon funciones de cobertura sanitaria, asistencial o educativa. Pronto se enfocaron hacia la instrucción en sentido amplio, la difusión de ideologías o valores morales y la afirmación de identidades colectivas. También fueron catalizadores de la crítica social de actualidad, especialmente los coros, comparsas y chirigotas de Cádiz, cuyos antecedentes se encontraban en conjuntos carnavalescos que -al menos desde 1827- cantaban canciones patrióticas plasmando la realidad social y mostrando los problemas cotidianos caricaturizados[26].

Dos de los rasgos principales de las agrupaciones corales fueron la recuperación de las tradiciones y el tinte político. Los orfeones habían canalizado inicialmente una afirma-

(24) ALONSO GONZÁLEZ, Celsa. "La música isabelina: el anverso lírico de un reinado azaroso", en: PÉREZ GARZÓN, Sisinio. *Los espejos de la reina.* Madrid: S.XXI; pp. 213-230.

(25) HUERTAS VÁZQUEZ, Eduardo. *El Teatro de los bufos madrileños.* Madrid: CSIC-IEM, 1993.

(26) SOLÍS, Ramón. *Coros y Chirigotas. Carnaval en Cádiz.* Cádiz: Sílex, 1988; pp. 21-53.

arrakastatsuenak. 1.799an, debekatu egin zuten gaztelera ez zen beste hizkuntza batean abestea, baina debekuak ez zuen indarrik izan, opera gehienak Italiakoen antzera konposatzen baitziren, eta herrialde horretako hizkuntzan. Opera italiarrak arrakasta izan zuen mende osoan zehar, eta 1.850. hamarkadaz geroztik, probintzia guztietan antzezten zuten. Borbon erregeen zaletasuna eta maila altuko gizartearena izan zituen bere alde. Boterearen eta ospearen haragiztatzearen sinbolo nagusia zen. Bizitza sozialeko beste agertoki batzuetan jositako harremanen sarea areagotzen zuten bertan. *Mundu handiarekin* topo egiteko toki aproposa zen, bai eta dotoretasuna eta elementu moda-modakoenak erakutsi ahal izateko lekua ere. Hain zuzen ere, *arrakasta filarmoniko* izendatutako fenomenoa sorrarazi zuen; emakume dirudunek gustuko abeslarien janzkerak edo orrazkerak imitatzen zituzten, tertulietan ariak edo kabatinak abesten zituzten, eta opera-ikuskizunetarako eserleku luxuzkoenak eskuratzeko borroka egiten zuten[22].

XIX. mendearen hasieratik, opera espainiar bat sustatzeko ahaleginak egin zituzten, eta, beranduago, antzerki nazional bat sortzeko helburuarekin lotu zen proiektu hori. Helburu harekin, hogeita hamargarren hamarkadan gertuko genero bat berpiztu zen; zarzuela, hain zuzen ere, eta 1.856an zarzuelako lehen antzokia ireki zuten Madrilen. Gazteleraz idatzita zegoen, eta kostunbrismo erromantikoko tipoak mantentzen zituen; denbora laburrean bihurtu zen klase sozial guztientzako ikuskizun. Ikusleen gehiengoari gertuagokoa iruditzen zitzaion opera baino, eskualdeetako musikak barne hartzen zituelako, pertsonaiak nahiko gertukoak eta errealak zirelako, eta ulertzen zuten hizkuntza batean mintzo zirelako. Halere, batzuetan, gehiegi erabiltzen zen zizipaza Andaluziako tipoekin edo Madrilgo *"chulapo"*-ekin; hark kritika ugari eragin zuen, eta gainerako probintzietako tipoak barne hartzen zituen zarzuela sortu zen[23]. Handik gutxira, formula komertzialago bat agertu zen: genero txikia. Iraupen motzeko antzezlan txikiak ziren, *ordukako antzokian* antzezteko idazten zirenak; horrek eskaintzari mesede egiten zion, eta kostuak murrizten zituen, berez operaren gastuak baino murritzagoak baziren ere[24].

1.866 eta 1.872 artean, Arderius bufoien (Frantziatik

(22) ALIER, Roger. El gran libro del Liceu. Bartzelona: Liceu, 1.999. MARTÍNEZ IBÁÑEZ, Antonia. *El Teatro Real en la época de Isabel II.* Madril: CSIC-IEM, 1.993.

(23) ALIER, Roger. *La zarzuela.* Bartzelona: Ma Non Troppo, 2.002.

(24) ALONSO GONZÁLEZ, Celsa. "La música isabelina: el anverso lírico de un reinado azaroso", honakoan: PÉREZ GARZÓN, Sisinio. *Los espejos de la reina.* Madril: S.XXI; 213-230. or.

ción colectiva de corte patriótico, que desde la década de 1860 se vinculó al impulso de la cultura regionalista, y desde 1880 nacionalista. Al unirse a los movimientos sociales de cada zona, se fueron mezclando sus objetivos internos, surgiendo orfeones políticos, católicos o tradicionalistas, canalizando sus actividades hacia el reforzamiento de sus respectivas ideologías. Desde 1890 se crearon por toda la península orfeones socialistas. Tuvieron escaso arraigo en lugares donde la asistencia obrera quedaba copada por los coros catalanes de Anselmo Clavé y sus variantes regionales, pues operaron como fuerza sindical pero de manera informal. En zonas mineras e industrializadas como Asturias, las sociedades corales creadas por grupos populares se convirtieron en focos de resistencia política; y resultaron una forma de control social cuando los organizaban las clases medias liberales[27]. Éstas anteponían las virtudes morales y pacificadoras de la música a las necesidades de tiempo libre del trabajador. Insertaban así a los orfeones dentro del proyecto de *regeneración del proletariado*, pues los veían como un modo de tener al obrero apartado de la taberna, donde por cierto, también se cantaba pero brindando a ritmo de alcohol.

## Los bailes

Bailar era una de las diversiones preferidas de todas las clases sociales. A principios de siglo se bailaba en donde se celebrasen las fiestas: casas, palacios, teatros, circos, cosos taurinos, *paseos de coches*, plazas del pueblo o las praderas de la verbena. Desde la década de 1840, fueron apareciendo salones de baile destinados únicamente a este fin, y se multiplicaron por toda España conforme avanzase la centuria. Después de 1860, en muchos parques se instalaron los kioscos donde tocaba la banda municipal o militar, que era a menudo la encargada de amenizar las fiestas públicas. En esos bailes, el roce de ambos sexos provocó más de una queja por parte de los sectores moralizantes y de los grupos procedentes de la burguesía, tan empeñados en orientar, conforme a sus criterios, el ocio de las clases bajas.

Los bailes de la alta sociedad siempre habían tenido lugar en entornos lujosos, palacios, fiestas o recepciones. De ejecución mucho más ordenada y ritualizada que los populares, en ellos eran imprescindibles los guantes blancos y los abanicos. Éstos se decoraban profusamente - incluso con espejos para controlar al personal-, y además

(27) CARBONELL I GUBERNA, Jaume. "Aportaciones al estudio de la sociabilidad coral en la España Contemporánea", *Hispania*, LXIII/2, nº 214 (2003); pp. 485-491.

inportatu zituen enpresariaren abizena) antzerkiak protagonismoa kendu zion zarzuelari. Zarzuelaren eta operaren antzeko generoa zen, baina ez zeukan kalitate artistiko musikal bera, aktoreak ez baitziren abeslariak, eta dezente desafinatzen baitzuten. Elkarrizketak barregarriak eta isekariak ziren, bai eta beroak ere; talde moralizatzaileek askotan eraso zituzten. Haiek gehien kritikatzen zituztenak *"suripandak"* ziren, hankak erakusten zituzten neska dantzariak, sektore kontserbatzaileak eskandalizatzen zituztenak, halere haiek ikustera joaten jarraitzen bazuten ere[25].

## Koru laikoak eta orfeoiak

Soziabilitate musikalerako modu ugari zegoen, eta, haien artean, koroak eta orfeoiak ziren nabarmenenak. Mendearen erdialdetik aurrera sortu ziren, eta 1.860. eta 1.880. hamarkadetan arrakasta handia izan zuten. Haien oinarri soziala musika herrikoiaren taldeetatik, txarangetatik eta errondailetatik zetorren, pazkoan, inauterietan, eta udako eta Gabonetako festetan biltzen zirenetatik. Gune industrial deprimituetako taldeek zuten aisialdi eskaserako entretenimendu gisa sortu ziren, eta, horregatik, batzuek beste funtzio batzuk ere betetzen zituzten, hala nola, estaldura sanitarioarena, laguntza ematearena edo hezkuntza-funtzioa. Bizkor bideratu ziren heziketara, zentzu zabalenean, eta ideologia edo balio moralak hedatzen zituzten, bai eta identitate kolektiboak sendotu ere. Garaiko kritika sozialaren katalizatzaile ere izan ziren, batez ere, koruak, konpartsak eta Cadizko *"chirigota"*-k. Inauterietako taldeak ziren horien aurrekariak, -1.827az geroztik, behintzat- kantu abertzaleak abesten zituztenak, errealitate soziala deskribatuz eta karikaturizatutako eguneroko arazoak agerian utziz[26].

Koru-taldeen ezaugarri nagusietako bi tradizioak berreskuratzea eta kutsu politikoa izan ziren. Orfeoiek, hasiera batean, kutsu abertzalezko baieztapen kolektibo bat bideratu zuten, 1.860. hamarkadaz geroztik kultura erregionalistarekin lotu ziren, eta, 1.880. hamarkadaz geroztik, kultura nazionalistarekin. Toki bakoitzeko mugimendu sozialekin bat egitean, orfeoien barne-helburuak nahasi egin ziren, eta orfeoi politikoak, katolikoak eta tradizionalistak sortu ziren; beren ideologiak indartzera bideratutako jarduerak egiten zituzten haiek. 1.890. hamarka-

(25) HUERTAS VÁZQUEZ, Eduardo. *El Teatro de los bufos madrileños*. Madril: CSIC-IEM, 1.993.

(26) SOLÍS, Ramón. *Coros y Chirigotas. Carnaval en Cádiz*. Cádiz: Sílex, 1.988; 21.-53. or.



10. Baile en las calles de Madrid / Dantza Madrileko kaleetan

de airear servían para hacer signos codificados que cada cual sabía interpretar. Tampoco podía faltar el carné de baile, cuya modalidad más ansiada era la lujosa cajita miniatura con una lámina de mármol y un lápiz para anotar los bailes pedidos[28]; esta costumbre fue importada de Francia -como tantas otras entonces-, donde lo usaban hombres y mujeres.

Además de las fiestas públicas o privadas que se celebraban periódicamente, los bailes más conocidos fueron los de carnaval, que se multiplicaron de manera desorbitada aún fuera de temporada. Asimismo, el baile era un objeto de atracción en los espectáculos. El ballet, las danzas típicas de cualquier zona, como el flamenco y la jota, en particular la aragonesa, u otras francesas como el can-can, tuvieron mucho éxito en los escenarios. En la zarzuela y el género chico se integraban diversos bailes entre los cantables: el vals, la mazurca o la habanera. Además, se bailaba entre las actuaciones teatrales y dentro de ellas, pues el baile se convirtió en uno de los platos fuertes de la obra representada.

Respecto a los estilos musicales, a comienzos del siglo XIX se heredaron algunos que provenían de la centuria

daz geroztik, orfeoi sozialistak sortu ziren penintsula osoan. Toki batzuetan ez ziren gehiegi finkatu, langile gehienak Anselmo Clavéren koru katalanetara, eta haien eskualdeetako aldaeretara, joaten zirelako, indar sindikal gisa funtzionatzen zutelako, baina era informalean. Meatze eta industria ugari zegoen lekuetan, Asturiasen, adibidez, herri-taldeek sortutako koru-elkarteak erresistentzia politikorako gune bihurtu ziren; klase ertain liberalek antolatzen zituztenean, berriz, kontrol sozialerako tresna bihurtu ziren[27]. Azken horiek, musikaren bertute moralei eta bakegileei ematen zieten lehentasuna, eta ez langilearen aisialdi-beharrei. Hala, *proletarioen birsorkuntzarako* proiektuan sartzen zituzten orfeoiak, langilea tabernatik urruti mantentzeko modu gisa ikusten baitzituzten. Bide batez, tabernan ere abesten zen, baina alkoholaren erritmora topa eginez.

(28) VEGA, Jesusa (Comisaria). *Vivencia y memoria de la Guerra de la Independencia en la Fundación Lázaro Galdiano*. Madrid: FLG-SCC, 2008; pp. 36-37; 42; y 238-239.

(27) CARBONELL I GUBERNA, Jaume. "Aportaciones al estudio de la sociabilidad coral en la España Contemporánea", *Hispania*, LXIII/2, nº 214 (2003); pp. 485-491.

anterior: el rigodón, la gavota, el galop, la contradanza, el minué y la pavana, vinculados inicialmente a las altas esferas, al mundo francés y la rigidez en la ejecución. El vals se difundió en la versión vienesa, pero más acelerada. También eran muy comunes los boleros, fandangos y seguirillas. Luego se introdujeron las danzas de origen polaco: polca, polonesa y mazurca. La mazurca, el vals y la habanera se adecuaron a los gustos populares y evolucionaron hacia ritmos más rápidos. Fueron muy populares el pasodoble y el pasacalles. Éste nació majestuoso de la marcha militar, pero se vulgarizó perdiendo rigidez y ganando en garbosidad. El chotis se importó de los bailes escoceses a mediados de la centuria, y se convirtió en el baile castizo, *agarrao* y chipén por excelencia[29]. Un poco más adelante se impuso el frenético can-can francés, y a finales del siglo XIX se introdujo la machita y el tango argentino. Desde el último tercio del siglo fueron ganando terreno los bailes regionales, ligados al resurgir de las culturas de cada territorio y a las asociaciones que los promovían entre las artes escénicas.

## Ateneos, liceos, casinos y otros círculos societarios

Puede decirse que en el terreno del ocio el fenómeno asociativo fue el más novedoso y de mayor éxito desde la caída del Antiguo Régimen. Nacía al calor de los cambios auspiciados por el Liberalismo y participaba de la filosofía del *espíritu de sociabilidad o civilidad* que se expandía por toda Europa, donde se crearon círculos societarios análogos. Se trataba de asociaciones privadas regidas por reglamentos; se mantenían mediante actividades extraordinarias o cuotas mensuales de sus *socios propietarios*, quienes se incluían en listas redactadas anualmente para el control propio o de las autoridades. Tenían a menudo una revista que servía como órgano de expresión de sus objetivos e ideología. Contaban con espacios propios como café, gabinete de lectura, auditorio o salas para reunirse y jugar a las cartas, ajedrez o ruleta, que a tantos asiduos conquistó durante el siglo XIX[30].

Los liceos y los ateneos nacieron en 1835 para servir a la causa pública mediante la difusión de los conocimientos artísticos, culturales y científicos. Rompían con el modelo institucional de las Academias Ilustradas del siglo XVIII, las cuales, elitistas y alejadas del *mundanal ruido*, no

(29) MARIBLANCA CANEYRO, Rosario. *Bailar en Madrid*, 1833-1950. Madrid: Rosario Mariblanca, 1999.

(30) ZOZAYA MONTES, María. *El Casino de Madrid, orígenes y primera andadura*. Madrid: Casino, 2002

## Dantzaldiak

Dantza egitea zen entretenimendu gustukoenetako bat klase sozial guztientzat. Festak zeuden leku guztietan dantza egiten zuten mendearen hasieran: etxeetan, jauregietan, antzokietan, zirkoetan, zezenplazetan, *auto-paseoetan*, herrietako plazetan edo dantzaldia egiten zen zelaietan. 1.840. hamarkadaz geroztik, dantza-aretoak sortu ziren horretarako, eta, mendeak aurrera egin ahala, ugaritu egin ziren Espainia osoan zehar. 1.860az geroztik, haietako askotan kiosko bat jarri zuten, eta udal bandak edo banda militarrak bertan jotzen zuen, haiek girotzen baitzituzten askotan festa publikoak. Dantzaldi haietan, bi sexuak igurzteak kexa ugari sorrarazi zituen sektore moralizatzaileen eta burgesiatik zetozen taldeen aldetik, behe-mailako klaseen aisialdia beren irizpideen arabera bideratzearekin tematuta baitzeuden.

Goi-mailako gizartearen dantzaldiak beti egin izan ohi ziren luxuzko tokietan, jauregietan, festetan edo harreretan. Haiek era ordenatuan eta erritualezkoan gauzatzen ziren, dantzaldi herrikoiak baino askoz ere gehiago, eta nahitaezkoa izaten zen eskularru zuriak eta abanikoak eramatea. Abaniko haiek oparo apaintzen zituzten -ispiluak ere jartzen zituzten jendea kontrolatzeko-, eta, haizea emateaz gainera, bakoitzak interpretatuko zituen zeinu kodifikatuak egiteko ere balio zuten. Dantza-txartela ere eduki behar zuten. Horren modalitate preziatuena luxuzko kutxatxo bat zen; marmol-xafla bat eta arkatz bat zituen, eta bakoitzari zenbat dantza eskatu zizkioten idazteko balio zuten[28]. Ohitura hori Frantziatik inportatu zuten -garai hartan askotan gertatzen zen bezala-, eta han gizonezkoek eta emakumezkoek erabiltzen zuten.

Aldizka ospatu ohi ziren festa publikoez eta pribatuez gainera, inauterietakoak izan ziren dantzaldi ezagunenak, eta era harrigarrian ugaldu zirenak, baita denboraldiz kanpo ere. Bestalde, dantza elementu erakargarria zen ikuskizunetan. Agertokietan arrakasta handia izan zuten balletak, toki bakoitzeko dantza tipikoek, hala nola, flamenkoak eta jotak, Aragoikoak bereziki, edo dantza frantses batzuk, hala nola, kan-kanak.

Zarzuelan eta genero txikian, abestien artean dantza batzuk sartzen zituzten: valsa, mazurka edo habanera. Gainera, antzerki-saioen artean eta horien barnean ere dantza egiten zuten, antzeztutako obraren elementu garrantzitsuenetako bat bihurtu baitzen dantza.

(28) VEGA, Jesusa (Comisaria). *Vivencia y memoria de la Guerra de la Independencia en la Fundación Lázaro Galdiano*. Madrid: FLG-SCC, 2008; 36-37; 42; eta 238-239. or.

anterior: el rigodón, la gavota, el galop, la contradanza, el minué y la pavana, vinculados inicialmente a las altas esferas, al mundo francés y la rigidez en la ejecución. El vals se difundió en la versión vienesa, pero más acelerada. También eran muy comunes los boleros, fandangos y seguirillas. Luego se introdujeron las danzas de origen polaco: polca, polonesa y mazurca. La mazurca, el vals y la habanera se adecuaron a los gustos populares y evolucionaron hacia ritmos más rápidos. Fueron muy populares el pasodoble y el pasacalles. Éste nació majestuoso de la marcha militar, pero se vulgarizó perdiendo rigidez y ganando en garbosidad. El chotis se importó de los bailes escoceses a mediados de la centuria, y se convirtió en el baile castizo, *agarrao* y chipén por excelencia[29]. Un poco más adelante se impuso el frenético can-can francés, y a finales del siglo XIX se introdujo la machita y el tango argentino. Desde el último tercio del siglo fueron ganando terreno los bailes regionales, ligados al resurgir de las culturas de cada territorio y a las asociaciones que los promovían entre las artes escénicas.

## Ateneos, liceos, casinos y otros círculos societarios

Puede decirse que en el terreno del ocio el fenómeno asociativo fue el más novedoso y de mayor éxito desde la caída del Antiguo Régimen. Nacía al calor de los cambios auspiciados por el Liberalismo y participaba de la filosofía del *espíritu de sociabilidad o civilidad* que se expandía por toda Europa, donde se crearon círculos societarios análogos. Se trataba de asociaciones privadas regidas por reglamentos; se mantenían mediante actividades extraordinarias o cuotas mensuales de sus *socios propietarios*, quienes se incluían en listas redactadas anualmente para el control propio o de las autoridades. Tenían a menudo una revista que servía como órgano de expresión de sus objetivos e ideología. Contaban con espacios propios como café, gabinete de lectura, auditorio o salas para reunirse y jugar a las cartas, ajedrez o ruleta, que a tantos asiduos conquistó durante el siglo XIX[30].

Los liceos y los ateneos nacieron en 1835 para servir a la causa pública mediante la difusión de los conocimientos artísticos, culturales y científicos. Rompían con el modelo institucional de las Academias Ilustradas del siglo XVIII, las cuales, elitistas y alejadas del *mundanal ruido*, no

(29) MARIBLANCA CANEYRO, Rosario. *Bailar en Madrid*, 1833-1950. Madrid: Rosario Mariblanca, 1999.

(30) ZOZAYA MONTES, María. *El Casino de Madrid, orígenes y primera andadura*. Madrid: Casino, 2002

## Dantzaldiak

Dantza egitea zen entretenimendu gustukoenetako bat klase sozial guztientzat. Festak zeuden leku guztietan dantza egiten zuten mendearen hasieran:

etxeetan, jauregietan, antzokietan, zirkoetan, zezenplazetan, *auto-paseoetan*, herrietako plazetan edo dantzaldia egiten zen zelaietan. 1.840. hamarkadaz geroztik, dantza-aretoak sortu ziren horretarako, eta, mendeak aurrera egin ahala, ugaritu egin ziren Espainia osoan zehar. 1.860az geroztik, haietako askotan kiosko bat jarri zuten, eta udal bandak edo banda militarrak bertan jotzen zuen, haiek girotzen baitzituzten askotan festa publikoak. Dantzaldi haietan, bi sexuak igurzteak kexa ugari sorrarazi zituen sektore moralizatzaileen eta burgesiatik zetozen taldeen aldetik, behe-mailako klaseen aisialdia beren irizpideen arabera bideratzearekin tematuta baitzeuden.

Goi-mailako gizartearen dantzaldiak beti egin izan ohi ziren luxuzko tokietan, jauregietan, festetan edo harreretan. Haiek era ordenatuan eta erritualezkoan gauzatzen ziren, dantzaldi herrikoiak baino askoz ere gehiago, eta nahitaezkoa izaten zen eskularru zuriak eta abanikoak eramatea. Abaniko haiek oparo apaintzen zituzten -ispiluak ere jartzen zituzten jendea kontrolatzeko-, eta, haizea emateaz gainera, bakoitzak interpretatuko zituen zeinu kodifikatuak egiteko ere balio zuten. Dantza-txartela ere eduki behar zuten. Horren modalitate preziatuena luxuzko kutxatxo bat zen; marmol-xafla bat eta arkatz bat zituen, eta bakoitzari zenbat dantza eskatu zizkioten idazteko balio zuten[28]. Ohitura hori Frantziatik inportatu zuten -garai hartan askotan gertatzen zen bezala-, eta han gizonezkoek eta emakumezkoek erabiltzen zuten.

Aldizka ospatu ohi ziren festa publikoez eta pribatuez gainera, inauterietakoak izan ziren dantzaldi ezagunenak, eta era harrigarrian ugaldu zirenak, baita denboraldiz kanpo ere. Bestalde, dantza elementu erakargarria zen ikuskizunetan. Agertokietan arrakasta handia izan zuten balletak, toki bakoitzeko dantza tipikoek, hala nola, flamenkoak eta jotak, Aragoikoak bereziki, edo dantza frantses batzuk, hala nola, kan-kanak.

Zarzuelan eta genero txikian, abestien artean dantza batzuk sartzen zituzten: valsa, mazurka edo habanera. Gainera, antzerki-saioen artean eta horien barnean ere dantza egiten zuten, antzeztutako obraren elementu garrantzitsuenetako bat bihurtu baitzen dantza.

(28) VEGA, Jesusa (Comisaria). *Vivencia y memoria de la Guerra de la Independencia en la Fundación Lázaro Galdiano*. Madrid: FLG-SCC, 2008; 36-37; 42; eta 238-239. or.

respondían a las inquietudes de sus coetáneos. Abogaban por la construcción de una cultura sin los fraccionamientos ideológicos imperantes en la época ni los sectarismos dominantes en las tendencias artísticas. Los liceos se organizaban en secciones culturales orientadas hacia las letras y las artes, especialmente musicales(31).

Los ateneos hundían sus raíces en las reuniones de los cafés durante el Trienio Liberal, cenáculo de las Sociedades Patrióticas(32). Siguiendo el modelo del Ateneo de Madrid, entre 1835 y 1850 surgieron en toda España muchos otros análogos. Eran centros difusores de la ciencia, la cultura y las modernas corrientes filosóficas. Actuaban como academias desde cuyas cátedras se impartían lecciones; pero ante todo servían como espacios de ensayo en el discurso y el debate público, de tribuna política informal, donde se dirimían cuestiones de la esfera pública(33). Los ateneos solían armonizar su austeridad de medios con los objetivos intelectuales que las emplazaban, aunque desde 1875 mejorasen sus instalaciones conforme a los deseos de ornato burgués que imperaban en todas las ciudades.

Los círculos lujosos por antonomasia fueron los casinos, cuya premisa era ofrecer a *personas conocidas los recreos que proporciona la buena sociedad*(34). En España, el primero nació en 1836 en Madrid y su modelo se difundió desde 1840 por todas las provincias. Eran lugares de cita obligados para los sectores conservadores de la burguesía y la aristocracia, que entre encuentros en los salones, juegos de cartas o ruletas, trazaban redes sociales de las que resultaban fructíferos negocios económicos, vínculos políticos y alianzas matrimoniales(35). De manera extraordinaria en la cotidianeidad masculina del círculo, realizaban fiestas y bailes de sociedad, fundamentales para la

(31) MALATESTA, María. "Sociabilità nobiliare, Sociabilità borghese. Francia, Italia, Germania, Svizzera XVIII-XX secolo". En: *Cheiron* (Coord. Maria MALATESTA), nº 9-10 (1988); pp. 7-18. ZOZAYA MONTES, María. "El origen dieciochesco de los casinos españoles a raíz de los modelos italianos", en: *Ocio y vida cotidiana en el mundo hispánico, S. XVI-XVIII*. Sevilla: Universidad, 2008; pp. 617-630.

(32) El primer Ateneo nacía de la que se había fraguado en el café literario El Parnasillo, formalizado en el exilio en Londres en 1823 y repatriado en 1835 en Madrid con la implantación del Liberalismo. VILLACORTA BAÑOS, Francisco. *El Ateneo científico, literario y artístico de Madrid: 1885-1912*. Madrid: CSIC, 1985.

(33) VILLACORTA BAÑOS, Francisco. "Los Ateneos liberales: política, cultura y sociabilidad intelectual", en *Hispania*, nº 214 (2003), pp. 415-442.

(34) Como dicen los primeros artículos reglamentarios de casi todos los casinos. Su principal modelo: *Reglamento del Casino del Príncipe*. Madrid: Impr. Caballero de Gracia, 1838-1842; Art. 1º y 2º.

(35) Tales alianzas resultaron esenciales para una transición social del Antiguo Régimen al Liberalismo. ZOZAYA MONTES, María. *Del ocio al negocio. Redes y capital social en el Casino de Madrid. Madrid*: La Catarata, 2007.

Musika-estiloei zegokienez, XIX. mendearen hasieran aurreko mendeko estilo batzuk hartu zituzten: rigodoia, gavota, galopa, kontradantza, minueta eta pabana, hasieran goi-mailakoekin, mundu frantsesarekin eta gauzatze zurrunarekin lotzen zirenak. Valsaren Vienako bertsioa hedatu zen, baina bizkorrago jota. Boleroak, fandangoak eta *"seguirilla"*-k ere ohikoak ziren.

Beranduago jatorri poloniarreko dantzak sartu ziren: polka, poloniarra eta mazurka. Mazurka, valsa eta habanera herritarren gustuetara egokitu ziren, eta erritmo azkarragoetara jo zuten haiek. Pasodobleak eta kalejirak ere arrakasta handia izan zuten. Hori martxa militarretik sortu zen dotore, baina herritartu egin zen; zurruntasuna galdu zuen, eta indarra irabazi. Mendearen erdialdera, txotisa inportatu zen Eskoziako dantzetatik, eta dantza jator bihurtu zen, *dantza lotu* gustukoena(29). Beranduago kan-kan frantsesa zabaldu zen, eta, XIX. mendearen amaieran, "machita" eta tango argentinarra sartu ziren. Mendearen azkeneko herenetik aurrera, indar handiagoa hartu zuten eskualdeetako dantzek, lurralde bakoitzeko kulturaren birsortzearekin lotuta, eta arte eszenikoetan haiek sustatzen zituzten elkarteei esker.

## Ateneoak, lizeoak, kasinoak eta beste elkarte-zirkulu batzuk

Esan daiteke, aisialdiaren eremuan, elkarteen fenomenoa izan zela berriztatzaileena eta arrakasta handiena izan zuena antzinako erregimena amaitu zenez geroztik. Liberalismoak eragindako aldaketen babesean sortu zen, eta *soziabilitate- edo gizabide-espirituaren* filosofiari jarraitzen zion; espiritu hura Europa osoan zehar zabaltzen ari zen, eta han ere antzeko elkarte-zirkuluak sortu ziren. Elkarte pribatuak ziren, erregelamendu bat zutenak; ezohiko jarduerekin edo bazkide jabe zirenen hileroko kuotekin mantentzen zituzten. Bazkide haiek izena ematen zuten urtero jasotzen zituzten zerrendetan, elkartearen beraren kontrolerako edo agintaritzaren kontrolerako. Askotan, aldizkari bat edukitzen zuten, beren helburuak eta ideologia ezagutarazteko balio zuena. Espazio propioak izaten zituzten, hala nola, kafetegia, irakurketa-kabinetea, auditorioa edo biltzeko gelak; azken horietan, kartetan, xakera edo erruletan jolasten zuten (erruletak zale ugari izan zituen XIX. mendean)(30).

(29) MARIBLANCA CANEYRO, Rosario. *Bailar en Madrid*, 1833-1950. Madril: Rosario Mariblanca, 1.999.

(30) ZOZAYA MONTES, María. *El Casino de Madrid, orígenes y primera andadura*. Madril: Casino, 2.002.

representación del prestigio simbólico de sus socios[36].

Desde 1850 fueron surgiendo numerosas peñas, círculos masculinos, privados y excluyentes que reproducían tales estructuras societarias, con unos reglamentos, un local, la unión de personas afines en función de su clase, profesión o ideología. Entre las clases bajas se extendieron los círculos para la defensa de unos intereses, generalmente laborales, económicos o asistenciales. Tras la aparición de las sociedades mutuas en Zaragoza desde 1827 y su multiplicación en la siguiente década en toda España, una circular ministerial favorecía su cobertura legal en 1839[37]. En las sociedades de resistencia, desde 1840 marcó la pauta el *Círculo Obrero de Barcelona*, y en las dedicadas a la educación obrera, la *Velada de Artistas, Artesanos, Jornaleros y Labradores* de Madrid, en 1850. Tras la revolución de 1868 surgirían múltiples asociaciones populares con variados perfiles, cuyo germen estaba ya fraguado y sólo necesitaban de la cobertura legal para formalizarse o para salir de la clandestinidad. Cumplían una gran variedad de funciones, entre las cuales destacaba la política informal, si bien se adaptaba a las situaciones gubernativas cambiantes para sobrevivir[38]. Se multiplicaron los círculos regionalistas, que a finales de siglo fueron orientados hacia intereses nacionalistas, y tuvieron una gran relevancia para la difusión del ideario y el reclamo de una cultura, lengua y costumbres propias[39].

Asimismo, aparecieron cuantiosas sociedades organizadas por elites minoritarias para controlar a sectores mayoritarios. Desde el año de 1868 proliferaron los *Círculos Católicos*, para canalizar el ocio de los grupos populares hacia la instrucción y la religión. De esa manera contrarrestaron la pérdida de influencia social que la iglesia había tenido tras la llegada del Liberalismo. Con su difusión, al amparo de la monarquía alfonsina, fueron la punta de lanza del resurgir católico, quedando constituidos con fuerza desde 1891, cuando la Encíclica *Rerum Novarum* agrupó a las múltiples variantes que existían de círculos de éste

(36) Resultaron ser el entorno ideal para futuras alianzas matrimoniales, consagrándose para las puestas de largo o exhibiciones de las jóvenes en edad casadera. PÉREZ ROJAS, Francisco J. Cartagena, 1874-1936: *Transformación urbana y arquitectura*. Murcia: Editora Regional, 1986; p. 337.

(37) LECUYER, Marie-Claude. "Algunos aspectos de la sociabilidad en España hacia 1840", en *Estudios de Historia Social,* nº 50-51; p. 153; pp. 145-160.

(38) GABRIEL, Pere. "Sociabilidad obrera y popular y vida política en Cataluña, 1868-1923". *Bulletin d'Histoire Contemporaine de l'Espagne,* CNRS, nº 17-18 (1993) ; pp. 145-156.

(39) Al respecto véanse los artículos de: Jordi CANAL; Enric UCELAY DA CAL; Pere SOLÀ; Jordi PLANAS; Joan-Lluís MARFANY; y Pere ANGUERA, en: *L'Avenç,* nº 171 (1993); pp. 16-67.

Lizeoak eta ateneoak 1.835ean sortu ziren, kausa publikoari laguntzeko, jakintza artistikoak, kulturalak eta zientifikoak zabalduz. XVIII. mendeko akademia ilustratuen erakunde-eredua hautsi zuten, haiek elitistak eta bakartuak baitziren, eta ez baitzieten erantzuten garaiko jendearen kezkei. Kultura berri bat sortu nahi zuten, garai hartan nagusi zen zatiketa ideologikorik gabea, eta joera artistikoetan nagusi zen sektakeriarik gabea. Letretara eta arteetara (musikaletara batez ere) zuzendutako sekzio kulturaletan banatzen ziren lizeoak[31].

Hirurteko Liberaleko kafetegietako bileretatik sortu ziren ateneoak, Elkarte Abertzaleen batzarretan[32]. Madrilgo Ateneoaren ereduari jarraiki, 1.835 eta 1.850 artean, haren antzeko ugari sortu ziren Espainia osoan. Zientzia, kultura eta korronte filosofiko modernoak zabaltzen zituzten. Akademia gisa funtzionatzen zuten, eta haietako katedretan irakatsi egiten zuten; baina, batez ere, diskurtsoan eta eztabaida publikoan trebatzeko espazio ziren, tribuna politiko ez-formalak, eta, haietan, esfera publikoko gaiak ebazten ziren[33]. Mahaigaineratutako helburu intelektualekin orekatzen zuten baliabide-eskasia ateneoek; halere, 1.875etik aurrera, haien instalakuntzak hobetu egin zituzten, hiri guztietan nagusi zen apaingarri burgesaren nahiaren arabera.

Kasinoak ziren zirkulu luxuzkoenak, eta haien helburua zen *elkarte onak ematen zituen jostetak eskaintzea pertsona ezagunei*[34]. Espainian, Madrilen sortu zen lehenengoa 1.836an, eta haren eredua zabaldu zen probintzia guztietara 1.840az geroztik. Burgesiako eta aristokraziako sektore kontserbatzaileentzat nahitaezkoa zen haietara joatea. Sektore haiek, aretoetako bilkuretan, karta-jokoetan edo erruletetan, sare sozialak ehuntzen zituzten, eta negozio ekonomiko oparoak, lotura politikoak eta ezkontza-itunak sortzen ziren[35]. Zirkuluan gizonezkoak soilik

(31) MALATESTA, Maria. "Sociabilità nobiliare, Sociabilità borghese. Francia, Italia, Germania, Svizzera XVIII-XX secolo". Honakoan: *Cheiron* (Koord. Maria MALATESTA), 9.-10. zenb. (1.988); 7.-18. or.ZOZAYA MONTES, María. *"El origen dieciochesco de los casinos españoles a raíz de los modelos italianos", honakoan: Ocio y vida cotidiana en el mundo hispánico, S. XVI-XVIII.*Sevilla: Universidad, 2.008; 617.-630. or.

(32) El Parnasillo kafetegi literarioan egiten zen bileratik sortu zen Lehenengo Ateneoa; erbestean formalizatu zen Londresen 1.823an, eta Madrilera itzuli zen 1.835ean, Liberalismoa ezarri zenean. VILLACORTA BAÑOS, Francisco. *El Ateneo científico, literario y artístico de Madrid: 1885-1912*. Madril: CSIC, 1.985.

(33) VILLACORTA BAÑOS, Francisco. "Los Ateneos liberales: política, cultura y sociabilidad intelectual", *Hispania*-n, 214. zenb. (2.003), 415.-442. or.

(34) la kasino guztietako lehenengo erregelamendu-artikulu guztiek zioten bezala. Horren eredu nagusia: *Reglamento del Casino del Príncipe.* Madril: Impr. Caballero de Gracia, 1.838-1.842;1. eta 2. art.

(35) Itun horiek nahitaezko izan ziren Antzinako Erregimenetik Liberalismorako trantsizio sozialerako. ZOZAYA MONTES, María. *Del ocio al negocio. Redes y capital social en el Casino de Madrid.* Madril: La Catarata, 2.007.

carácter[40]. A partir del Sexenio Democrático (1868-1874) aparecieron múltiples asociaciones vinculadas a una opción política, entre las que destacaron los círculos alfonsinos, cenáculos que apoyaban el retorno monárquico que triunfaría con la Restauración. La libertad de asociación en 1881 motivó la fundación de múltiples ateneos obreros, socialistas y republicanos, a menudo organizados por una burguesía intelectual que quería sacar al trabajador de la taberna y orientar su tiempo de ocio hacia la cultura. El adoctrinamiento se unía a ideologías en otros casos como los *círculos tradicionalistas*, que contribuyeron a la resurrección y mantenimiento del carlismo en los últimos años del siglo[41].

Además de múltiples entidades societarias elitistas, a finales de la centuria nacieron los *clubs* deportivos ligados a las modas europeas, fundados en provincias donde empresarios extranjeros tenían negocios y en sus colonias practicaban algún deporte: *yatching, jockey* o *tennis club*[42]. También se generalizaron las sociedades dedicadas a la gimnasia, el ciclismo, el juego de pelota o las carreras de caballos, y rara vez las de caza. El *club de foot-ball* llegó a finales de siglo y, a diferencia del *rugby*, tuvo una rápida y exitosa acogida entre todas las clases sociales.

## Del viaje romántico al turismo

A principios del siglo XIX, los viajes de placer estuvieron generalmente restringidos a los grupos sociales pudientes. Tras la Guerra Napoleónica y hasta el fin de la Primera Guerra Carlista (1812-1839), venían a España viajeros con ansias románticas, buscando el sustituto de oriente, un mundo atrasado condenado a desaparecer, pródigo en *tipos* caracterizados según su origen o dedicación[43]. Entre 1860 y 1870 comenzarían a tener lugar los viajes vinculados al mundo europeo, en cuyo *tour* se iría integrando España poco a poco. La movilidad de paisanos y forasteros fue favorecida por los adelantos en las comunicaciones, la mejora de carreteras y la construcción de líneas de ferrocarril que abarataban los trayectos, los cambios urbanísticos y

(40) MILLÁN GARCÍA, J. Ramón. "Asociacionismo católico español en 1900: un intento de aproximación", *Hispania Sacra*, nº 102 (Vol. L, 1998); pp. 639-665.

(41) CANAL, Jordi. *El Carlisme català dins l'Espanya de la Restauració. Un assaig de modernització política (1888-1900).* Vic: Eumo, 1998.

(42) ALONSO OLEA, Eduardo J. "Del Yatching a la vela, de los caballitos a la piscina. La sociabilidad de las elites y sus espacios: Club Marítimo del Abra- Real Sporting Club de Bilbao", *Vasconia*, nº 33 (2003).

(43) VALERO, Alet. « Oriente, Playas y Castillos. Pratiques, images et politiques touristiques en Espagne entre 1830 et 1928 », *Bulletin d'Histoire Contemporaine de l'Espagne*, nº 16 ( 1992) ; pp. 120-125.

egon ohi baziren ere, tarteka sozietate-festak eta -dantzaldiak antolatzen zituzten; haiek funtsezkoak ziren bertako bazkideen ospe sinbolikoa adierazteko[36].

1.850az geroztik, beste lagun-talde batzuk sortu ziren, gizonezkoen zirkuluak, pribatuak eta baztertzaileak, elkarte-egitura haiek kopiatzen zituztenak; erregelamendu bat zeukaten, lokal bat, eta klaseari, ogibideari eta ideologiari zegokienez antzekotasunak zituzten pertsonak biltzen ziren haietan. Behe-mailako klaseetan, interes jakin batzuk defendatzeko zirkuluak zabaldu ziren; normalean, lanarekin, ekonomiarekin edo laguntzarekin erlazionatutako interesak izaten ziren. 1.827an, mutualitate-elkarteak sortu ziren Zaragozan, eta, ondorengo hamarkadan, Espainia osoan ugaritu egin ziren. 1.839an, ministerio-zirkular batek estaldura legala eman zien[37]. Erresistentzia-elkarteetan, 1.840az geroztik, *Bartzelonako Langile Zirkuluak* ezarri zituen jarraibideak, eta langileen hezkuntza jorratzen zutenetakoak, berriz, *Madrilgo Artisten, Artisauen, Jornalarien eta Nekazarien Gau Ekitaldiak* ezarri zituen 1.850ean. 1.868ko iraultzaren ondoren, herri-elkarte ugari sortu zuten, ezaugarri desberdinak zituztenak; haien hazia ereinda zegoen, eta lege-estaldura behar zuten soilik, formalizatu eta klandestinitatetik atera ahal izateko. Zenbait funtzio betetzen zituzten, eta, haien artean, politika ez-formalarena zen nagusiena, bizirauteko, gobernuko egoera aldakorretara egokitzen baziren ere[38]. Zirkulu erregionalistak ugaritu ziren. Mendearen amaieran, interes nazionalistetara bideratu zituzten, eta garrantzi handia izan zuten leku bakoitzeko kulturaren, hizkuntzaren eta ohituren idearioa zabaltzeko eta haiek aldarrikatzeko[39].

Era berean, gutxiengo eliteek antolatutako elkarte ugari sortu ziren; gehiengoen sektoreak kontrolatzeko sortzen zituzten. 1.868az geroztik, Zirkulu Katolikoak ugaritu ziren, herritar-taldeen aisialdia ikasbidera eta erlijiora bideratzeko asmoz. Era hartan, aurre egin zioten Liberalismoaren ondoren elizak eragin soziala galdu izana-

(36) Etorkizuneko ezkontza-itunetarako leku egokia ziren, eta toki ospetsu bihurtu ziren *jendaurreko aurkezpenetarako* edo ezkontzeko adinean zeuden neskak erakusteko. PÉREZ ROJAS, Francisco J. *Cartagena, 1.874-1.936: Transformación urbana y arquitectura.* Murtzia: Editora Regional, 1.986; 337. or.

(37) LECUYER, Marie-Claude. "Algunos aspectos de la sociabilidad en España hacia 1840", *Estudios de Historia Social*-en, 50.-51. zenb.; 153. or.; 145.-160. or.

(38) GABRIEL, Pere. "Sociabilidad obrera y popular y vida política en Cataluña, 1868-1923". *Bulletin d'Histoire Contemporaine de l'Espagne*, CNRS, 17.-18. zenb. (1.993); 145.-156. or.

(39) Horren inguruan, ikus honakoen artikuluak: Jordi CANAL; Enric UCELAY DA CAL; Pere SOLÀ; Jordi PLANAS; Joan-Lluís MARFANY; eta Pere ANGUERA, honakoan: *L'Avenç*, 171. zenb. (1.993); 16.-67. or.

la modernización de los espacios de ocio. Desde los años setenta, tres motores se ensamblaban en este proceso: los imperativos del progreso técnico, los ideales de cosmopolitismo y las exigencias de la moda[44]. En este punto, tres espacios desempeñaron un papel muy relevante: los balnearios, los casinos de juego y las instalaciones hoteleras. Fue la denominada *trilogía balnearia*, que entre 1870 y 1900 supuso un potente foco de dinamización económica en toda la costa española y europea[45].



11. Balneario de las Arenas / Areetako bainuetxea

Los balnearios sufrieron significativas modificaciones durante este proceso. A principios del siglo existían *casetas*

(44) ZOZAYA MONTES, María. "Ocio, cosmopolitismo y modernidad. Imágenes de progreso a través de los Casinos en torno a 1900", en: GÓMEZ-FERRER, Guadalupe (Ed.). *Modernizar España. 1898-1914.* Madrid: UCM, 2006; 11 pp.

(45) TOULIER, Bernard. "Les casinos de la côte Basque, 1858-1929", en: *Biarritz. Le Casino, 1929- 1994.*- Paris: Norma, 1994; pp. 13-38.

ri. Haiek zabaltzean, alfontsotar monarkiaren babesera, katolizismoa indartu zen berriz ere; 1.891n garbi eratuta zeuden, eta Rerum Novarum Entziklikak ezaugarri haiek zituzten zirkuluen aldaera desberdinak bateratu zituen[40]. Seiurteko Demokratikoaz (1.868-1.874) geroztik, aukera politiko jakin bati lotutako elkarte ugari sortu zen; haien artean, alfontsotar zirkuluak ziren nabarmenenak. Erregearen itzuleraren aldeko bilerak ziren haiek, eta arrakasta lortu zuten; berrezarpena, hain zuzen ere. Elkartzeko askatasunarekin batera, 1.881ean, langileen ateneo eta ateneo sozialista eta errepublikar ugari eratu zituzten; askotan, burgesia intelektualak antolatzen zituen, langileak tabernetatik atera zitezela nahi baitzuten, eta haien aisialdia kulturara bidera zezatela.

Beste kasu batzuetan, doktrinamendua ideologiekin lotzen zuten, hala nola, *zirkulu tradizionalistetan*, eta haiek karlismoa berpizten eta mantentzen lagundu zuten mendearen amaierako urteetan[41].

Elkarte-erakunde elitista ugariz gainera, mendearen amaieran *kirol-klubak* sortu ziren, Europako modei jarraiki. Enpresari atzerritarren kolonietan kirolen bat egiten bazen, enpresari haiek negozioak zituzten probintzietan sortzen ziren: *yatching-*, *jockey-* edo *tennis-clubak*[42]. Beste jarduera batzuen inguruko elkarteak ere ugaritu ziren, hala nola, gimnasiaren, ziklismoaren, pilota-jokoaren edo zaldi-lasterketen ingurukoak, eta, noizean behin, baita ehizaren ingurukoak ere. *Foot-ballaren* kluba mendearen amaieran heldu zen, eta *rugbya* ez bezala, *foot-balla* azkar zabaldu zen, eta arrakasta handia izan zuen klase sozial guztien artean.

## Bidaia erromantikotik turismora

XIX. mendearen hasieran, talde sozial dirudunek soilik egin zitzaketen plazer-bidaiak. Napoleonen Gerraren ondoren, eta Lehen Karlistaldia (1.812-1.839) amaitu arte, bidaiari erromantikoak etortzen ziren Espainiara, ekialdearen ordezko baten bila, desagertzera kondenatuta zegoen atzeratutako mundu baten bila, beren jatorriaren edo ogibidearen araberako *tipo* ugari zituenaren bila[43].

(40) MILLÁN GARCÍA, J. Ramón. "Asociacionismo católico español en 1900: un intento de aproximación", *Hispania Sacra*, 102. zenb. (L bol., 1.998); 639.-665. or.

(41) CANAL, Jordi. *El Carlisme català dins l'Espanya de la Restauració. Un assaig de modernització política (1.888-1.900).* Vic: Eumo, 1.998.

(42) ALONSO OLEA, Eduardo J. "Del Yatching a la vela, de los caballitos a la piscina. La sociabilidad de las elites y sus espacios: Club Marítimo del Abra- Real Sporting Club de Bilbao", *Vasconia, 33.* zenb. (2.003).

*de baños* en zonas destacadas por sus propiedades salubres. Pero se encontraban en un pésimo estado de conservación y pertenecían a la propiedad comunal o del concejo, que solían orientarlos hacia prácticas sociales caritativas. A partir del *Reglamento de aguas y baños minerales* en 1817, se fueron acondicionando de la mano del Cuerpo de Médicos. Desde 1840 y 1850 concedieron su explotación a particulares, que los fueron perfeccionando y convirtiendo en fructíferos negocios, de forma similar a otros espacios de esparcimiento. Con sus avances y mejoras se irían orientando hacia las clases altas en detrimento del espacio otorgado a las menesterosas, que fue desapareciendo. También cambió el concepto de *tomar baños*: la funcionalidad inicial de los balnearios era curativa, luego se vinculó a los conceptos científicos higienistas y, cuando estos caducaron, a los imperativos de la moda. Los balnearios pasaron a concebirse como establecimientos hidroterapéuticos a donde se acudía como síntoma de *buen tono* y no de mala salud[46]. Aumentó su número tanto en la montaña como en la costa, imitando el modelo de casino-balneario europeo (tipo *spa* de Baden-Baden). Espacios lujosos y cosmopolitas, eran el escaparate simbólico estacional de la alta sociedad, cuyas personalidades eran anunciadas en sus correspondientes boletines locales. Allí se pasaban las noches en el baile, en el casino, e incluso iban dirigentes políticos o exiliados a conspirar y a ganarse ciertos favores diplomáticos[47].

Paralelamente, se puso de moda el *baño de ola* en época estival. Las clases altas y medias podían permitirse los cuantiosos gastos que comportaba el viaje hacia la playa, el hotelito, las comidas, el alquiler de casetas o sombrillas; asimismo, un traje de baño que tapase todas las partes del cuerpo posibles para *no ofender a la moral*, como dictaban las diversas ordenanzas municipales. Pese a ellas, las clases bajas solían emular dichas prácticas, partiendo en el vagón de tercera con las alforjas llenas de comida, alojándose en una fonda y bañándose con una sábana o un saco con tres agujeros, eso cuando no iban en cueros, lo cual era con frecuencia motivo de escándalo para el recato de los bañistas de *buen tono*[48].

A la par, se fomentaron las excursiones a la montaña, las salidas para cazar o pescar, los viajes de placer al

(46) LUIS GÓMEZ, Alberto; GIL DE ARRIBA, Carmen; SAN PEDRO, Azucena; HERREROS, Juan José. *Aproximación histórica al estudio de los balnearios montañeses (1826-1936)*. Santander: COCINC, 1989.

(47) DUROUX, Rose. « Des eaux et des complots », en : MONTANDON, Alain (Dir.) *Les espaces de la civilité.* Saint-Pierre-du-Mont : Eds Universitaires, 1995 ; pp. 227-249.

(48) URIA, Jorge. *Una historia social del ocio...*; pp. 53-55.

1.860 eta 1.870 artean, mundu europarrarekin lotutako bidaiak egiten hasi ziren, eta Espainia ere *tour* haietan sartu zen pixkanaka. Herritarren eta kanpotarren mugikortasunak hobera egin zuen zenbait elementuri esker, hala nola, komunikazioetan egindako aurrerapenei, errepideen hobekuntzari, trenbideen eraikuntzari (azken horiek ibilbidearen kostua merkeago egiten zuten), hirigintza-aldaketei eta aisialdi-espazioen modernizazioari esker. Hirurogeita hamargarren hamarkadaz geroztik, hiru motor bildu ziren prozesu hartara: aurrerapen teknikoaren aginduak, kosmopolitismoaren idealak eta modaren eskakizunak[44]. Puntu hartan, honako hiru espazio hauek paper garrantzitsua jokatu zuten: bainuetxeek, joko-kasinoek eta hotel-instalakuntzek. 1.870 eta 1900 arteko garaiari *bainuetxeen trilogia* deitu zitzaion, eta garrantzia handia izan zuen Espainiako eta Europako kosta osoaren dinamizazio ekonomikorako[45].

Prozesu hartan, aldaketa handiak egin zituzten bainuetxeetan. Mendearen hasieran, *bainu-etxolak* egoten ziren beren ezaugarri osasungarriak zirela eta ezagun ziren lekuetan. Baina ez ziren ongi mantenduta egoten; komunak edo udalarenak izaten ziren, eta haiek karitatezko jarduera sozialetara bideratu ohi zituzten. 1.817ko *Ur eta bainu mineralen erregelamendua* egin zenetik, Mediku Gorputza haiek egokituz joan zen pixkanaka. 1.840aren eta 1.850aren ondoren, partikularrei esleitu zieten haien ustiapena; haiek hobetu egin zituzten, eta negozio errentagarri bihurtu zituzten, beste aisialdi-espazio batzuekin gertatu zen bezala. Haien aurrerapenarekin eta hobekuntzekin, goi-mailako klaseetara zuzenduz joan ziren, behartsuei zuzendutako espazioaren kaltetan (azkenean desagertu egin zen). *Bainuak hartzearen* kontzeptua bera ere aldatu egin zen: hasiera batean, bainuetxeak sendagarritzat hartzen zituzten; beranduago, kontzeptu zientifiko higienistekin lotu zituzten; eta, haiek pasa zirenean, modaren aginduekin zuten zerikusia. Osasun txarraren sintoma izan beharrean, *tonu onaren* sintoma gisa erabiltzen zituztela ulertzen zen, eta establezimendu hidroterapeutikotzat hartuak izatera pasa ziren[46]. Ugaritu egin ziren, bai mendian, bai eta kostan ere, eta Europako kasi-

(43) VALERO, Alet. « Oriente, Playas y Castillos. Pratiques, images et politiques touristiques en Espagne entre 1830 et 1928 », *Bulletin d'Histoire Contemporaine de l'Espagne*, 16. zenb. (1.992) ; 120.-125. or.

(44) ZOZAYA MONTES, María. "Ocio, cosmopolitismo y modernidad. Imágenes de progreso a través de los Casinos en torno a 1900", honakoan: GÓMEZ-FERRER, Guadalupe (Ed.). *Modernizar España. 1898-1914.* Madril: UCM, 2.006; 11. or.

(45) TOULIER, Bernard. "Les casinos de la côte Basque, 1858-1929", honakoan: *Biarritz. Le Casino, 1929- 1994.*- Paris: Norma, 1.994; 13.-38. or.

(46) LUIS GÓMEZ, Alberto; GIL DE ARRIBA, Carmen; SAN PEDRO, Azucena; HERREROS, Juan José. *Aproximación histórica al estudio de los balnearios montañeses (1826-1936)*. Santander: COCINC, 1.989.

campo, a la capital de provincia o hacia ciudades antaño descritas por viajeros románticos[49]. Estos viajes estaban favorecidos por la propaganda, las sociedades excursionistas, las fotografías de la prensa, el uso finisecular del velocípedo o del automóvil, y por las bajas tarifas de los *trenes de recreo*. Conforme se fuese extendiendo la red ferroviaria y se estableciesen precios económicos, se generalizaría la salida dominguera en el vagón de tercera.

También proliferaron las visitas culturales a los museos. En el siglo XVIII estuvieron establecidos como *gabinetes de curiosidades*, donde se juntaban costosas piezas para el disfrute privado, regio y elitista. Durante el siglo XIX se constituyeron siguiendo el modelo del *salón burgués*, estrato social que si bien no tenía el dinero suficiente como para poseer una colección privada, su grado de cultura le permitía conocer y apreciar el valor artístico de las piezas. Con la creación de museos públicos se pudo colectivizar la cultura. A partir de las sucesivas desamortizaciones y la Guerra de la Independencia, debido al intento por reconstruir las colecciones y objetos expoliados, se fueron elaborando inventarios de la riqueza mueble de los poderes monárquicos y eclesiásticos. Sus autoridades depositaron en las Academias e instituciones estatales su confianza para la reunión y conservación de las obras de arte de interés público. Con ellas se formaron colecciones de titularidad estatal que pasaron al Patrimonio Nacional. Fue el siglo del mecenazgo ministerial y de Estado; también de la creación de grandes pinacotecas burguesas. A partir de 1819, cuando se estableció en Madrid el primer Museo Nacional de pintura, el del Prado, se irían fundando sucesivamente museos nacionales y provinciales. Lo mismo que sucedería con las bibliotecas desde 1838, favoreciendo la colectivización y difusión del arte y de la cultura[50].

## Exposiciones Universales, *panoramas y cinetoscopio*

Desde principios del siglo XIX, en las capitales europeas se realizaban periódicamente exposiciones industriales y agrícolas donde se exponían ante los visitantes las nuevas maquinarias o los productos típicos de cada provincia. En 1851 en Londres se organizaba la primera Exposición

(49) MARTÍ I BAIGUET, Josep. *Valls, una Memòria fotogràfica (1845-2000)*. Valls: IEV, 2000; pp. 47 y 70.

(50) La Biblioteca Nacional se construye entre 1866 y 1892, momento en que está en boga el intento de nacionalización de diversas facetas culturales y artísticas que afectaban especialmente al terreno del ocio. Véase el compendio realizado por: RUEDA HERNANZ, Germán. *España 1790-1900. Sociedad y condiciones económicas*. Madrid: Istmo, 2006; 301-315.

no-bainuetxearen eredua imitatzen zuten (Baden-Badeneko *spa-ren* modura). Luxuzko espazioak eta kosmopolitak ziren, goi-mailako gizartearen urtaroko erakusleiho sinbolikо, eta herrietako aldizkarietan iragartzen zuten zein pertsonalitate bertaratuko zen. Leku haietan dantzaldian edo kasinoan pasatzen zuten gau osoa, eta politikoak edo erbesteratuak ere joaten ziren, konspirazioak egitera, eta diplomaziaren laguntza jakin batzuk eskuratzera[47].

Era berean, *olatu-bainua* jarri zen modan uda-garaian. Goi-mailako eta erdi-mailako klaseek ordain zitzaketen sortzen ziren gastu guztiak, hala nola, hondartzara arteko bidaia, hoteltxoa, otorduak, etxetxoen eta eguzkitakoaren alokairua; bestalde, gorputzeko ahal adina atal estaltzen zituen bainu-jantzia ere behar zen, *morala ez mintzeko*, udal-ordenantzek agintzen zuten eran. Halere, behe-mailako klaseek ere egiten zituzten antzeko jarduerak; hirugarren mailako bagoian joaten ziren, zakutoak janariz beteta, ostatu batean lo egiten zuten, eta hiru zulodun maindire edo zaku batekin hartzen zuten bainua, larrugorritan ez bazen -halakoetan, *tonu oneko* bainu-hartzaileak eskandalizatu egiten ziren-[48].

Era berean, bestelako irteera batzuk ere sustatu zituzten: mendirako irteerak, ehizarako edo arrantzarako irteerak edo landara, hiriburura edo antzina bidaiari erromantikoek deskribatutako hirietara egindako plazer-bidaiak[49]. Bidaia haien alde zeuden propaganda, txangozaleen elkarteak, prentsako argazkiak, belozipedoa eta autoa maiz erabiltzea mende amaieran, eta *aisialdi-trenen* tarifa merkeak. Trenbide-sarea hedatzen joan zen heinean, eta prezio merkeak ezartzen joan zirenean, igandeetan hirugarren mailako bagoian irteerak egiteko ohitura orokortu egin zen.

Museoetarako bisita kulturalak ere ugaritu ziren. XVIII. mendean, *bitxikeria-kabinete* gisa erabiltzen zituzten; pieza garestiak biltzen zituzten gozamen pribatu, aberats eta elitistarako. XIX. mendean zehar, *areto burgesaren* ereduari jarraitu zioten. Izan ere, estratu sozial hark bilduma pribatu bat edukitzeko adina diru ez bazuen ere, bere kultura-mailari esker, gai zen pieza haien balio artistikoa zein zen jakiteko eta preziatzeko. Museo publikoak sortu zirenean, kultura kolektibizatu egin zen. Desamortizazioen eta Independentzia Gerraren ostean, botere monarkikoen eta eliza-botereen ondasun higigarrien inbentarioak egin

(47) DUROUX, Rose. « Des eaux et des complots », honakoan: MONTANDON, Alain (Zuz.) *Les espaces de la civilité*. Saint-Pierre-du-Mont : Eds Universitaires, 1.995 ; 227.-249. or.

(48) URÍA, Jorge. *Una historia social del ocio...*; 53.-55. or.

(49) MARTÍ I BAIGUET, Josep. *Valls, una Memòria fotogràfica (1845-2000)*. Valls: IEV, 2000; 47. eta 70. or.

Universal, la cual contaba con la representación de todas las naciones del mundo, fenómeno que se repetiría en diferentes ciudades en los años sucesivos. Gracias al patrocinio de las autoridades, a los precios económicos y a las tarifas especiales de tren, atraerían ingentes masas de visitantes. Destaca la asistencia del obrero industrial, actor de los cambios técnicos y protagonista rutinario de los procesos fabriles, que ahora se convertía en el espectador de una maquinaria con la que convivía a diario.

Con respecto a las exposiciones celebradas entre 1851 y 1901, podrían señalarse las siguientes constantes: la introducción de los avances técnicos, la entronización del ocio y el intento por hacer una visión general del mundo, de *panoramizarlo*. El progreso técnico se aplicó en varios puntos de estas exposiciones. Primero, en la exhibición de máquinas novedosas. Segundo, en los medios empleados para trasladarse en las propias exposiciones: el tren, el tren deslizante sobre agua, las lanchas, las pasarelas mecánicas o el elevador hidráulico y eléctrico. Tercero, la técnica fue aplicada en las obras de ingeniería constructiva, como el primer edificio de hierro y cristal con el cual Joseph Paxton reproducía la idea de un invernadero en Londres en 1851, o la mítica Torre Eiffel de París en 1889.

ziren, espoliatutako bildumak eta objektuak berreraikitzeko asmoz. Agintaritzek akademien eta estatuko erakundeen esku utzi zuten interes publikoko artelanak biltzeko eta mantentzeko ardura. Artelan haiekin bildumak osatu zituzten; haiek estatuarenak ziren, eta, beraz, ondare nazional izatera pasa ziren. Ministerio- eta estatu-mezenasgoaren mendea izan zen; bestalde, pinakoteka burges handiak ere sortu ziren mende hartan.

1.819an, margolaritzako lehenengo museo nazionala ezarri zuten Madrilen; Prado Museoa, hain zuzen ere. Ordutik aurrera, beste museo nazional eta probintzial batzuk eratu zituzten. Berdin gertatu zen, 1.838az geroztik, liburutegiekin ere; eta, hala, artearen eta kulturaren kolektibizazioa eta zabaltzea sustatu zituzten[50].

## Erakusketa Unibertsalak, *panoramak eta kinetoskopioa*

XIX. mendearen hasieratik, Europako hiriburuetan industria- eta nekazaritza-erakusketak egiten zituzten aldizka, eta, haietan, makina berriak edo probintzia bakoitzeko produktu tipikoak erakusten zizkieten bisitariei.



12. Exposición Universal de París 1889 / Parisko Erakusketa Unibertsala 1889

(50) Liburutegi Nazionala 1.866 eta 1.892 artean eraiki zen; garai horretan, zenbait alderdi kultural eta artistiko nazionalizatzeko ahaleginak egiten ari ziren, batez ere, aisialdiaren alorrean. Ikus honako laburpen hau: RUEDA HERNANZ, Germán. *España 1790-1900. Sociedad y condiciones económicas.* Madril: Istmo, 2.006; 301.-315. or.

Cuarto, tales avances se canalizaron directamente hacia el entretenimiento, bien albergando parques de atracciones mecanizados dentro del recinto de la exposición, bien introduciendo nuevas tecnologías aplicadas al ocio (especialmente el *panorama* o el *cinetoscopio*, que luego veremos). Así, los avances técnicos pasaron de ser exhibidos a ser integrados en el propio recinto para servicio o entretenimiento del público, convirtiéndose en protagonistas principales de la exposición[51].

También tales exposiciones buscaron entretener *panoramizando* el mundo, por dos vías. Una, convirtiéndose en un escaparate donde, las naciones técnicamente más desarrolladas se exponían mostrando sus progresos, mientras que aquellas menos avanzadas eran exhibidas como restos de culturas perdidas (lo cual, por cierto, estimuló estudios antropológicos y ávidos impulsos imperialistas). Parecía que se podía dar la vuelta al mundo en un recinto. Además de los edificios temáticos de cada país, se construían escenarios de ciudades exóticas con casas y edificios religiosos o civiles típicos con sus correspondientes nativos. Tuvieron mucho éxito las comunidades de Oceanía, África o América, a cuyos indígenas mostraban en fragmentos de poblados reconstruidos, trabajando su artesanía o haciendo sus labores cotidianas. Completaban los decorados con animales, invernaderos de plantas exóticas, e incluso lagos artificiales por donde navegar esquivando algún cocodrilo disecado para asustar a la concurrencia[52].

Otra vía para representar el mundo fue el *panorama*, artilugio para viajar artificiosamente por cualquier lugar que se pintase sobre una tela, que se contemplaba desde una plataforma (tren, barco, faro o mirador). Sintetizaba una realidad transportando al espectador a lugares y batallas que difícilmente podría conocer de otro modo. Quienes lo veían testimoniaban experimentar una *ilusión* imposible de describir. En este sentido fue sonado el *panorama* de la Exposición de Buffalo en 1901, que llevaba a una Luna llena de grutas, enanos, gigantes y doncellas que ofrecían a los visitantes un queso verde. Progresivamente se fueron mecanizando e introduciendo mejoras técnicas, efectos sonoros y lumínicos. Se crearon variantes como el *cosmorama*, del espacio; el *mareorama*, barco con olor a algas, oleaje y tormenta que hacían vomitar a más de uno; o el *cineorama*, donde se proyectaban imágenes filmadas que se veían desde la góndola de un globo aerostático en el

(51) CANOGAR, Daniel, *Ciudades Efímeras. Exposiciones Universales: Espectáculo y tecnología*. Madrid: Julio Ollero, 1992.

(52) CORRAL, José del. *La vida cotidiana en el Madrid del siglo XIX*. Madrid: La Librería, 2001, p. 98.

1.851n antolatu zen Londresen lehenengo Erakusketa Unibertsala; munduko nazio guztien ordezkaritza izan zen bertan, eta, hurrengo urteetan, errepikatu egin zen fenomeno hura beste hiriburu batzuetan. Bisitari eskerga erakarri zuten, agintaritzen babesari, prezio merkeei eta treneko tarifa bereziei esker. Nabarmentzekoa da langile industrialak haietara joan izatea, hura baitzen, hain zuzen ere, aldaketa teknikoen eragile eta fabrika-prozesuetako ohiko protagonista; eta erakusketa haietan, berriz, egunero erabiltzen zituen makinen ikusle bihurtzen zen.

1.851ko eta 1.901eko erakusketei dagokienez, honako faktore hauek errepikatu ziren: aurrerapen teknikoak sartzea, aisialdiari garrantzi handia ematea, eta munduaren ikuspegi orokor bat emateko ahaleginak egitea, hau da, mundua *panoramizatzeko* ahaleginak. Erakusketa haietako zenbait puntutan aplikatzen zen aurrerapen teknikoa. Hasteko, makina berrien erakusketan. Bigarren, erakusketetan zehar mugitzeko erabilitako bitartekoetan: trena, ur-gaineko tren irristakorra, txalupa, ibiltoki mekanikoak edo igogailu hidraulikoa eta elektrikoa. Hirugarren, eraikuntza-ingeniaritzako lanetan ere aplikatu zen teknika. Aibidez, 1.851ko Londresko burdinazko eta kristalezko eraikinean; Joseph Paxtonenena zen, eta negutegi bat irudikatzen zuen. 1.889ko Parisko Eiffel Dorre ezaguna izan zen beste adibide bat. Laugarren, zuzenean bideratu zituzten aurrerapen haiek aisialdira, bai erakusketa-gunean jolas-parke mekanizatuak jarriz, bai eta teknologia berriak aisialdira aplikatuz ere (bereziki, *panorama eta kinetoskopioa*, aurrerago ikusiko dugun bezala). Hala, erakutsiak izatetik erakusketa-gunean bertan erabiliak izatera pasa ziren aurrerapen teknikoak, ikusleen zerbitzurako edo entretenimendurako, eta erakusketako protagonista nagusi bihurtu ziren[51].

Erakusketa haiek munduaren *panoramizazioaren* bidezko entretenimendua ere eskaini nahi izan zuten, bi bide jorratuz horretarako. Alde batetik, erakusleiho bihurtuz; teknikoki garapen handiagoa zuten nazioek beren aurrerapenak erakusten zituzten, eta aurrerapen gutxienekoak, berriz, galdutako kulturen hondar gisa erakusten zituzten (horrek ikerketa antropologikoak bultzatu zituen, bai eta nahi inperialistak sustatu ere). Bazirudien munduaren inguruan buelta bat emateko aukera ematen zuela erakusketa-guneak. Herrialde bakoitzeko gaikako eraikinez gainera, hiri exotikoen agertokiak eraikitzen ziren, etxe eta eraikin erlijioso edo zibil tipikoekin eta zegozkien natiboekin. Arrakasta handia izan zuten Ozeaniako, Afrikako eta Amerikako komunitate-

(51) CANOGAR, Daniel, *Ciudades Efímeras. Exposiciones Universales: Espectáculo y tecnología*. Madril: Julio Ollero, 1.992.

cual se iba volando de forma aparente[53].

En España el *panorama* se extendió tímidamente a principios del siglo XIX, cuando aún existía el *Mundo Nuevo*, máquina óptica que ofrecía vistas de los lugares más insospechados. Entre 1830 y 1850, casi todas las grandes ciudades de España contaban con un *panorama* donde se mostraban dibujos de batallas o viajes por diversos países del mundo. En 1880 se inauguraba en Madrid el *Panorama Nacional*, primero de Europa construido en hierro y cristal, donde tuvieron gran éxito las representaciones de la Batalla de Tetuán o la última Guerra Carlista[54]. Los *panoramas* irían desapareciendo con la aparición del *kinetoscopio* a finales del siglo. Su origen procedía de continuados experimentos con juguetes ópticos que querían lograr una secuencia de imágenes en movimiento, engañosa acción de una realidad inexistente que llevó a denominar a uno de estos artilugios *fenakitoscopio* o espectador ilusorio. Tras múltiples inventos y experimentos desde 1820, en 1891 se presentó públicamente el *kinetoscopio*, se grabó la primera película americana, y en 1895 los hermanos Lumiére presentaban en París el primer pase cobrando[55]. En 1896 el cinematógrafo Pathé y Kalb llegaban a las principales ciudades de España. Proyectaban breves pases en los intermedios de zarzuelas y obras de género chico, cuyos títulos remitían a los gustos tan en boga en los espectáculos: *los pillos; el barbero; baile fantástico; baile francés; danza serpentina; la jota aragonesa; duelo de damas; el gimnasta; asalto de armas*[56].

El origen del cinematógrafo se encontraba también en las linternas mágicas, que en España se conocían desde principios del siglo XIX por las proyecciones de dibujos o pinturas -luego fotografías- que los linternistas ambulantes hacían en teatritos. Generaban apariciones de imágenes con la ayuda de espejos móviles y juegos de iluminación, a veces combinados con la puesta en escena de fenómenos electroquímicos. El juguete estroboscópico perfeccionó la linterna mágica, permitiendo crear un áurea especial sobre partes del cuerpo y favorecer espectros, que carecían de

(53) CANOGAR, Daniel, *Ciudades Efímeras. Exposiciones...*

(54) *Gazeta de Madrid*: 16-XII-1880, nº 351, p. 810; 7-I-1881, nº 7, p. 66; 20-IX-1883, nº 263, p. 826; 14-VII-1872, nº 196, p. 136; 23-I-1875, nº 23, p. 194; 12-XII-1880, nº 347, p. 772; 26-11-1881, nº 330, p. 490. CORRAL, José del. *La vida cotidiana...*; p. 98.

(55) DOMÍNGUEZ, Gustavo; TALENS, Genaro (Dirs). *Historia general del Cine. Orígenes del cine.* Vol. I. Madrid: Cátedra, 1998; pp. 55-56.

(56) *La Iberia*: 29-X-1896, nº 14.377; 30-X-1896, nº 14.878, 1-XI-1896, nº 14.880. La Dinastía: 26-XI-1896, nº 14.878. *Album Salón. Revista Iberoamericana de literatura y Arte:* 1-VI-1898; 1-VII-1898; 16-IV-1898; 16-X-1898.

ek; leku haietako indigenak erakusten ziren berreraikitako herrixketan, artisautzan edo eguneroko lanetan zihardutela. Dekoratuetan animaliak, landare exotikodun negutegiak eta laku artifizialak zeuden (azken horietan nabigatu egin zitekeen, jendea beldurtzeko disekatutako krokodiloren batekin topo eginez)[52].

*Panorama* izan zen mundua irudikatzeko beste modu bat. Tela batean margotzen zuten leku bat, eta han zehar bidaia artifiziala egiteko aukera ematen zuen gailu hark. Plataforma batetik begiratzen zuten tela hura (trena, itsasontzia, itsasargia edo begiratokia). Errealitate bat sintetizatzen zuen, eta bestela ezagutuko ez zituzkeen toki eta guduetara eramaten zuten ikuslea. Ikusten zutenek zioten deskriba ezinezko *ilusio* bat bizi izan zutela. Zentzu horretan, 1.901ean Buffaloko Erakusketan egindako *panorama* oso entzuna izan zen. Panorama hartan Ilargirako bidaia erakusten zuten, bertan, leizeak, ipotxak, erraldoiak eta gonbidatuei gazta berdea eskaintzen zieten neskak zeudela. Pixkanaka, mekanizatu egin zituzten, eta hobekuntza teknikoak egin zizkieten, bai eta soinu- eta argi-efektuak jarri ere. Beste aldaera batzuk ere sortu ziren, hala nola, *kosmorama*, espaziokoa; *mareorama*, itsasontzia alga-usainarekin, olatuekin eta ekaitzekin (bati baino gehiagori goragalea eragiten zien); edo *zineorama* (hegan zihoala zirudien globo aerostatiko bateko gondolatik filmatutako imajinen proiekzioa ikusten zen)[53].

Espainian, *panorama* pixkanaka hedatu zen XIX. mendearen hasieran, oraindik *Mundu Berria* existitzen zenean; leku harrigarriak ikusteko aukera ematen zuen makina optikoa zen. 1.830 eta 1.850 artean, *panorama* bat zegoen Espainiako hiri bakoitzean ia, eta guduen marrazkiak edo munduko zenbait leku erakusten ziren haietan. 1.880an, *Panorama Nazionala* ireki zuten Madrilen. Burdinaz eta kristalez eraikitako lehenengoa izan zen Europan. Bertan, arrakasta handia izan zuten Tetuango Guduko edo azken Karlistaldiko irudikapenek[54]. Mendearen amaieran *kinetoskopioa* sortu zenean, panoramak desagertuz joan ziren. Jostailu optikoekin egiten ziren esperimentuetatik zetorren. Haien helburua zen mugimenduan zeuden imajinen sekuen-

(52) CORRAL, José del. *La vida cotidiana en el Madrid del siglo XIX.* Madril: La Librería, 2.001, 98. or.

(53) CANOGAR, Daniel, *Ciudades Efímeras. Exposiciones...*

(54) *Gazeta de Madrid*: 16-XII-1.880, 351. zenb., 810. or.; 7-I-1.881, 7. zenb., 66. or.; 20-IX-1.883, 263. zenb., 826. or.; 14-VII-1.872, 196. zenb., 136. or.; 23-I-1.875, 23. zenb., 194. or.; 12-XII-1.880, 347. zenb., 772. or.; 26-11-1.881, 330. zenb., 490. or.CORRAL, José del. *La vida cotidiana...*; 98. or.

movimiento propio, más allá del que pudieran darle el linternista y sus montajes. Tales fenómenos tuvieron gran pujanza en España, y a mediados de la centuria el más famoso era la *Fantasmagoría*. Algunas de estas prácticas ilusorias fueron más allá de la superstición popular o la física recreativa. Desde 1865, siguiendo la estela de su ideólogo Allan-Kardec, aparecían las *Sociedades de Espiritistas*, que proliferaron entre grupos militares de toda España, y especialmente de Andalucía(57). Afloraron de la mano de la masonería, la teosofía y el krausismo, por su oposición a la religión católica; fueron retroalimentadas por espectáculos de magia, hipnosis, sonambulismo, ilusionismo, espiritismo y por adelantos técnicos como el daguerrotipo o la fotografía(58).

## Colofón. Una visión general del ocio antes y después del Liberalismo

Varias características se podrían señalar de la evolución del ocio a lo largo del siglo XIX. Primero, cobró gran relevancia en la vida cotidiana. Ganó un protagonismo que le fue apartando de concepciones negativas de ociosidad y desocupación que le venían censurando durante el Antiguo Régimen(59). Con la llegada del Liberalismo daría un giro radical: el individuo pasó de ser culpabilizado por su ociosidad a disfrutar de su tiempo libre; de mantener los obligados lazos tradicionales de los gremios a elegir sus propias formas de sociabilidad colectiva; de emplear su tiempo de ocio como un medio de entretenimiento a usarlo como un escaparate regido por los dictados del *buen tono*. En la vida cotidiana el ocio se convirtió en una *necesidad,* pero con matices: para la clase baja se concebía como una ociosidad que se debía canalizar productivamente, lo cual ayudaría a controlar sus costumbres e instrucción. Para la clase alta o media se vinculaba a las caras exigencias sociales y de las apariencias. Para todos ellos, el tiempo de ocio se convirtió en un baremo del estatus y en un medidor social, en un

(57) ABASCAL Y SÁIZ, José R. *Espiritistas Andaluces del S. XIX.* Sevilla: Biblioteca Andaluza, 1986.

(58) De la supuesta comunicación establecida con los espíritus surgió más de un libro, como el *dictado directamente por los espíritus a los mediums, publicado con abierta hostilidad hacia la iglesia por el Círculo Cristiano Espiritista* de Lérida, centro de propaganda popular anticatólica. MENÉNDEZ PELAYO, Marcelino. Historia de los heterodoxos españoles. Madrid: CSIC; Vol. II, pp. 1404-1408.

(59) CHARTIER, Roger. "Ocio y vida cotidiana en el mundo hispánico en la Edad Moderna", en: NÚÑEZ, Francisco (Coord.). *Ocio y vida cotidiana en la Edad Moderna.* Sevilla: Universidad, 2007; pp. 13-26. El extremo recuperando la necesidad del ocio para el obrero sería la obra de LAFARGUE, Paul, *El derecho a la pereza.* [PÉREZ LEDESMA, Manuel, Ed. crítica.] Barcelona: Fundamentos, 1983 [1ª Ed. 1880].

tzia bat lortzea. Existitzen ez zen errealitate baten gezurrezko ekintza zenez, gailu horietako bati *fenakitoskopio* edo iruzurrezko ikusle deitu zitzaion. 1.820az geroztik, asmakari eta esperimentu ugari egin ziren. Azkenik, 1.891n, *kinetoskopioa* aurkeztu zen publikoki, eta lehen pelikula amerikarra grabatu zen. 1.895ean, Lumiére anaiek ordaindu beharreko lehenengo emanaldia aurkeztu zuten Parisen(55). 1.896an, Pathé eta Kalb zinematografoa Espainiako hiri nagusietara iritsi zen. Emanaldi laburrak proiektatzen zituzten zarzuelako edo genero txikiko ikuskizunetako atsedenetan, eta ikuskizunetan modan zeuden gustuak aintzat hartzen zituzten proiekzioen izenburuek: *barrabasak; bizargina; dantza ederra; dantza frantsesa; serpentina-dantza; jota aragoiarra; damen duelua; gimnasta; arma-erasoa*(56).

Linterna magikoekin ere bazuen zerikusia zinematografoak. Espainian, XIX. mendearen hasieratik ezagutzen ziren haiek, marrazkien edo margolanen -beranduago, argazkien- proiekzioak zirela eta, linternari ibiltariek antzoki txikietan egiten zituztenak. Imajinak agertarazten zituzten ispilu mugikorren eta argiztapen-jokoen bidez, eta, batzuetan, fenomeno elektrokimikoen eszenaratzearekin konbinatuta. Jostailu estroboskopikoak linterna magikoa hobetu zuen. Gorputzeko atalen gainean aura berezi bat sortzeko eta espektroak sortzeko aukera ematen zuen; haiek ez zeukaten mugimendu propiorik, baina linternariak eta haren muntaiek mugiarazten zituzten. Halako fenomenoek bultzada handia izan zuten Espainian, eta, mendearen erdialdera, *Fantasmagoria* zen ezagunena. Irudimenezko jarduera haiek herritarren sineskeriez eta dibertimenduzko fisikaz haraindi joan ziren.

1.865. urtearen ostean, Allan-Kardec ideologoaren lorratzari jarraiki, elkarte espiritistak agertu ziren, eta Espainiako talde militar askotara hedatu ziren, batez ere, Andaluzian(57). Masoneriaren, teosofiaren eta krausismoaren eskutik sortu ziren, erlijio katolikoaren aurkakoak zirelako. Indarra ematen zieten magia-ikuskizunek, hipnosiak, sonanbulismoak, ilusionismoak, espiritismoak eta aurrerapen teknikoek, hala nola, dagerrotipoek eta argazkigintzak(58).

(55) DOMÍNGUEZ, Gustavo; TALENS, Genaro (Zuz.). *Historia general del Cine. Orígenes del cine.* I. bol.Madril: Cátedra, 1.998; 55.-56. or.

(56) *La Iberia*: 29-X-1.896, 14.377. zenb.; 30-X-1.896, 14.878. zenb., 1-XI-1.896, 14.880. zenb. *La Dinastía*: 26-XI-1.896, 14.878. zenb. *Album Salón. Revista Iberoamericana de literatura y Arte*: 1-VI-1.898; 1-VII-1.898; 16-IV-1.898; 16-X-1.898.

(57) ABASCAL Y SÁIZ, José R. *Espiritistas Andaluces del S. XIX.*Sevilla: Biblioteca Andaluza, 1.986.

(58) Liburu bat baino gehiago sortu ziren espirituekin ezarritako balizko komunikaziotik, hala nola, *espirituek mediumei zuzenean diktatutakoa*, Leridako *Zirkulu Kristau Espiritistak* -katolizismoaren aurkako herri-propagandarako zentroak- elizarekiko etsaitasun garbiz argitaratutakoa. MENÉNDEZ PELAYO, Marcelino. *Historia de los heterodoxos españoles.* Madril: CSIC; II. bol., 1.404.-1.408. or.



13. Entrada al Teatro / Antzerkiko sarrera

reflejo de lo que se tenía, de lo que se era y de lo que se pretendía ser, en un medio de ver y ser visto.

Segundo, en el terreno económico, el ocio dejó sentir la huella del Liberalismo. Se fue convirtiendo progresivamente en un negocio. Espacios lúdicos que durante el Antiguo Régimen se habían ligado a la beneficencia y que dependían del ayuntamiento o la comunidad, ahora iban a integrarse en la dinámica del capitalismo. Comerciantes y empresarios los transformaron en verdaderas industrias que producían fuertes rendimientos. Los cambios se retroalimentaban: se realizaban nuevas o mayores inversiones; se profesionalizaron en un mayor grado los oficios ligados a los entretenimientos; de los antiguos espacios polivalentes se pasaba a los especializados en lugares exclusivos.

Tercero, el ocio también dejó sentir el peso de los efectos industriales del siglo XIX. Los resultados del progreso técnico se implantaron en los centros de ocio por varias vías. Una, introduciendo los modernos avances. Si desde 1840 el interior de los espacios de ocio se había acondicionado con lujosas decoraciones, desde 1870 se sumaría la mayor cantidad posible de adelantos técnicos. Se instaló el telégrafo, el teléfono, la iluminación eléctrica, el ascensor hidráulico -luego eléctrico-, el ventilador, el pulverizador de oxígeno y otros tantos inventos como las audiciones telefónicas de ópera, que en ocasiones parecí-

## Hitz-atzea. Aisialdiaren ikuspegi orokor bat, Liberalismoaren aurretik eta ondoren

Zenbait ezaugarri azpimarra daitezke XIX. mendean aisialdiak izandako bilakaeraren inguruan. Hasteko, garrantzia handia eman zioten egunerokotasunean. Protagonismoa eman zioten, eta horrek nagitasunaren eta ezer ez egitearen ideia negatiboetatik urrundu zuen; izan ere, Antzinako Erregimenean zentsuratu egiten zuten ideia horiekin lotzen zutelako[59]. Liberalismoa iritsi zenean, aldaketa handia bizi izan zuen: norbanakoari ez zitzaion jada errurik botatzen nagitasunagatik, aitzitik, aisialdiaz gozatzera pasa zen; bere gremioari zegozkion lotura tradizionalak mantendu beharrean, zein soziabilitate kolektibo mota nahi zuen erabaki zezakeen; aisialdia entretenimendurako erabiltzetik, *tonu onaren* agindupeko erakusleiho gisa erabiltzera pasa zen. Eguneroko bizitzan *nahitaezko* bihurtu zen aisialdia, baina ñabardura batzuekin: behe-mailako klaseari zegokionez, era produktiboan erabili beharreko nagikeriarekin lotzen zen, eta horrek bere ohiturak eta heziketa kontrolatzen lagunduko ziola pentsatzen zuten. Goi-mailako edo erdi-mailako klaseei zegokienez, eskakizun sozial

(59) CHARTIER, Roger. "Ocio y vida cotidiana en el mundo hispánico en la Edad Moderna", honakoan: NUÑEZ, Francisco (Koord.). *Ocio y vida cotidiana en la Edad Moderna*. Sevilla: Universidad, 2.007; 13.-26. or.Langilearen aisialdirako beharra berreskuratu zuen muturra honako lan hau izan zen: LAFARGUE, Paul, *El derecho a la pereza*. [PÉREZ LEDESMA, Manuel, Ed. crítica.] Bartzelona: Fundamentos, 1.983 [1. ed. 1.880].

an implantarse como un símbolo de innovación más que por su verdadera funcionalidad. Otra vía para introducir tales avances fue a través de las atracciones y efectismos: en la maquinaria empleada en la tramoya de los espectáculos o en la incorporación de elementos sonoros, lumínicos y técnicos a la escenografía teatral. Otra vía, mediante artilugios que constituían la base protagonista de la diversión: el *panorama*, el cine o los parques de atracciones que tanto ayudaron a difundir las exposiciones Universales. La última vía fue aplicando el progreso técnico a las comunicaciones y al abaratamiento de los costes, que ayudó a difundir y popularizar las novedades. Contribuyó asimismo al fomento de la incipiente industria del turismo nacional e internacional, que fue impulsada gracias al dúo formado por los medios de transporte y la mejora o construcción de áreas dedicadas al recreo y al reposo estacional.

Cuarto, al impulso de esos cambios se fomentó la oferta del ocio. Los grupos populares tuvieron mayor accesibilidad a los espectáculos, no sólo por las entradas de precio reducido, que siempre habían existido -incómodas y de mala visibilidad-, sino porque conforme avanzase la centuria aumentarían los espacios acondicionados para el recreo popular. A la par, progresivamente irían reproduciendo ciertas prácticas sociales de la burguesía, aunque siempre se redujesen en medios y posibilidades económicas.

garestiekin eta itxurarekin lotzen zuten. Haientzat guztientzat, estatus-baremo eta neurgailu sozial bihurtu zen aisialdia; bakoitzak zer zeukan adierazten zuen, bai eta bakoitza zer zen eta zer izan nahi zuen ere, eta ikusteko eta ikusia izateko bitartekoa zen.

Bigarren, ekonomiari zegokionez, Liberalismoak eragin handia izan zuen aisialdian. Pixkanaka, negozio bihurtu zen. Kapitalismoaren dinamikan sartu ziren Antzinako Erregimenean benefizentziarekin lotzen ziren espazio ludikoak, udalaren edo komunitatearen mende egoten zirenak. Merkatariek eta enpresariek benetako industria errentagarri bihurtu zituzten. Aldaketek indarra ematen zioten elkarri: inbertsio berriak eta handiagoak egiten zituzten; entretenimenduekin lotutako ogibideak gehiago profesionalizatzen ziren; jarduera askotarako balio zuten antzinako espazioetatik, toki esklusiboetan espezializatutakoetara pasatzen zen.

Hirugarren, XIX. mendeko gertaera industrialek ere eragina izan zuten aisialdian. Aurrerapen teknikoaren emaitzak aisialdi-zentroetan ere aplikatzen zituzten zenbait modutan. Alde batetik, aurrerapen modernoak aplikatuz. 1.840. urtetik aurrera, aisialdi-guneak luxuz apaindu baziren, 1.870. urtetik aurrera, ahalik eta aurrerapen tekniko gehien sartzen zituzten horietan. Zenbait elementu instalatu ziren, hala nola, telegrafoa, telefonoa, argiztapen elektrikoa, igogailu hidraulikoa -eta, beranduago, elektrikoa-, haizagailua, oxigeno-lainoztagailua eta beste hainbeste asmakari; adibidez, telefono bidezko opera-entzunaldiak, haien benetako funtzionaltasunagatik baino, berrikuntza-sinbolo zirelako ezartzen zirenak. Atrakzioen eta efektuen bidez ere aplikatzen zituzten aurrerapen haiek: adibidez, ikuskizunetako tramoian erabilitako makinariaren bidez, edo antzerki-eszenografian soinu- eta argi-elementuak eta elementu teknikoak sartuz. Beste alde batetik, jostaketaren oinarri nagusi ziren gailuen bidez ere aplikatzen zituzten. *Panoramak*, zineak edo jolas-parkeek, adibidez, Erakusketa Unibertsalen arrakastari lagundu zioten. Aurrerapen teknikoa komunikazioetara eta kostuak merkeago egiteko prozesura aplikatzea izan zen beste bide bat, eta berrikuntzak hedatzen eta ezagun egiten lagundu zuen horrek. Nazioko eta nazioarteko turismoaren industria hasiberria sustatzen ere lagundu zuen, garraiobideei esker, bai eta aisialdira eta urtaroko atsedenaldira bideratutako guneen hobekuntzari edo eraikuntzari esker ere.

Laugarren, aldaketa haien laguntzaz, aisialdi-eskaintza sustatu zuten. Herritarrek ikuskizunetara joateko aukera gehiago zituzten; ez prezio baxuko sarrerengatik soilik, beti existitu baitziren -ezerosoak eta ikuspen gutxi zutenak-, baita, mendeak aurrera egin ahala, herritarren olgetara egokitutako tokiak ugaritu zirelako ere. Era berean, burgesiaren jarduera sozial jakin batzuk imitatuz joan ziren pixkanaka, nahiz eta baliabideak eta aukera ekonomikoak murritzagoak izan.

## BIBLIOGRAFÍA EMPLEADA
## ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

### Prensa/Prentsa

*La Iberia*, Madrid, 29-X-1896, nº 14.377; 30-X-1896, nº 14.878, 1-XI-1896, nº 14.880.
*La Dinastía*, Barcelona, 26-XI-1896, nº 14.878.
*Album Salón. Revista Iberoamericana de literatura y Arte*. Barcelona, 1-VI-1898; 1-VII-1898; 16-IV-1898; 16-X-1898.
*Gazeta de Madrid*: 16-XII-1880, nº 351, p. 810; 7-I-1881, nº 7, p. 66; 20-IX-1883, nº 263, p. 826; 14-VII-1872, nº 196, p. 136; 23-I-1875, nº 23, p. 194; 12-XII-1880, nº 347, p. 772; 26-11-1881, nº 330, p. 490.

### Revistas monográficas/Aldizkari monografikoak

*Estudios de Historia Social. La sociabilidad en la España Contemporánea*, nº 50-51 (1989); pp. 133-305.
*Vasconia*, nº 33 (2003).
*Hispania. Espacios y formas de la sociabilidad en la España Contemporánea*. nº 214, LXIII/2 (2003).
*Bulletin d'Historie Contemporaine de l'Espagne. Fêtes, sociabilités, politique dans l'Espagne contemporaine*. CNRS, nº 30-31 (1999-2000)
*L'Avenç. Formes i espais de sociabilitat a la Catalunya contemporània*, nº 171 (1993); pp. 16-67.

### Bibliografía

ABASCAL Y SÁIZ, José R. *Espiritistas Andaluces del S.XIX*. Sevilla: Biblioteca Andaluza, 1986.
ALAS CLARÍN, Leopoldo. *La Regenta*. Barcelona: Orbis, 1982; T. I.
ALIER, Roger, *El gran Libro del Liceu*. Barcelona: Liceu, 1999.
ALIER, Roger. *La zarzuela*. Barcelona: Ma Non Troppo, 2002.
ALONSO GONZÁLEZ, Celsa. "La música isabelina: el anverso lírico de un reinado azaroso", PÉREZ GARZÓN, Sisinio. *Los espejos de la reina*. Madrid: S.XXI; pp. 213-230.
ALONSO OLEA, Eduardo J. "Del Yatching a la vela, de los caballitos a la piscina. La sociabilidad de las elites y sus espacios", Vasconia, nº 33 (2003).
AÑÓN FELIÚ, Carmen. *Parques y jardines de Madrid*. Madrid: Doce Calles, 2001.
ARAUJO SÁNCHEZ, Ceferino. *Recuerdos de algunas estampas populares españolas de fines del siglo pasado y una parte de éste*. [Facsímil del manuscrito, 1894]. Madrid: Sociedad Conmemoraciones Culturales y Fundación Lázaro Galdiano, 2008.
ARIES, Philippe; DUBY, Georges. *Historia de la vida privada*. Madrid: Taurus, 1989.
ATIENZA, Ignacio. *Aristocracia, poder y riqueza en la España Moderna. La Casa de Osuna, siglos XV-XIX*. Madrid: S.XXI, 1987.
CANAL, Jordi. *El Carlisme català dins l'Espanya de la Restauració. Un assaig de modernització política (1888-1900)*. Vic: Eumo, 1998.
CANOGAR, Daniel. *Ciudades Efímeras. Exposiciones Universales: Espectáculo y tecnología*. Madrid: Julio Ollero, 1992.

CARBONELL I GUBERNA, Jaume (Ed.). *El orígens de les associacions corals a Espanya (S.XIX-XX)*. Barcelona: Oikos-Tau, 1998.

-----. "Aportaciones al estudio de la sociabilidad coral en la España Contemporánea", en *Hispania*, LXIII/2, nº 214 (2003); pp. 485-504.

CHARTIER, Roger. "Ocio y vida cotidiana en el mundo hispánico en la Edad Moderna", en NÚÑEZ, Francisco (Coord.). *Ocio y vida cotidiana en la Edad Moderna*. Sevilla: Universidad, 2007; p. 13-26.

COQUARD, Lluís. *Los cómicos de la legua*. Barcelona:CPVA, 1974.

CORRAL, José. *La vida cotidiana en el Madrid del siglo XIX*. Madrid: La Librería, 2001.

DOMÍNGUEZ, Gustavo; TALENS, Genaro (Dirs). *Historia general del Cine. Orígenes del cine*. Madrid: Cátedra, 1998, Vol. I.

DUROUX, Rose, « Des eaux et des complots », en : MONTANDON, Alain (Dir.) *Les espaces de la civilité*. Saint-Pierre-du-Mont : Eds Universitaires, 1995 ; pp. 227-249.

ESCOIQUIZ, Juan. *Tratados de las obligaciones del hombre*. Madrid: 1889

FERNÁNDEZ DÍEZ, Andoni. *Los espacios de sociabilidad en Logroño a comienzos del siglo XX. Una aproximación a la Historia del ocio*. Logroño: IER, 2004.

GABRIEL, Pere. "Sociabilidad obrera y popular y vida política en Cataluña, 1868-1923". *Bulletin d'Histoire Contemporaine de l'Espagne*, CNRS, nº 17-18 (1993) ; pp. 145-156.

GARVÍA SOTO, Roberto. *El problema de los objetivos en las organizaciones formales*. Madrid: Instituto Juan March, 1993.

GIL NOVALES, Alberto. *El Trienio Liberal*. Madrid: SXXI, 1980.

GUEREÑA, Jean-Louis. "*De Historia prostitutionis*. La prostitución en la España Contemporánea", Ayer, nº 25 (1997); pp. 35-72.

-----. *Sociabilidad, cultura y educación en Asturias bajo la Restauración (1875-1900)*. Oviedo: Real Instituto de Estudios Asturianos, 2005.

HUERTAS VÁZQUEZ, Eduardo. *El Teatro de los bufos madrileños*. Madrid: CSIC, 1993.

IÑIGUEZ ALMECH, Francisco. *El arquitecto Martín López Aguado y la Alameda de Osuna*. Madrid: CSIC, 1944.

JUSTO, Enrique. "Las peleas de gallos", *Revista de dialectología y tradiciones populares*, T. XXV (1969); pp. 317-323;

LAFARGUE, Paul. *El derecho a la pereza*. Barcelona: Fundamentos, 1983 [1ª Ed.: 1880].

LECUYER, Marie-Claude. "Algunos aspectos de la sociabilidad en España hacia 1840", *Estudios de Historia Social*, nº 50-51 (1989); pp. 145-160.

LÓPEZ RINCONADA, Miguel A. "1854, Madrid, revolución y toros", *Anales del IEM*, T. XXX. Madrid: CSIC, 1991.

LUIS GÓMEZ, Alberto; GIL DE ARRIBA, Carmen; SAN PEDRO, Azucena; HERREROS, Juan José. *Aproximación histórica al estudio de los balnearios montañeses (1826-1936)*. Santander: Cámara oficial de Comercio, Industria y Navegación de Cantabria, 1989.

MALATESTA, María. "Sociabilità nobiliare, Sociabilità borghese. Francia, Italia, Germania, Svizzera XVIII-XX secolo", *Cheiron*, nº 9-10 (1988); pp. 7-18.

MARIBLANCA CANEYRO, Rosario. *Bailar en Madrid,* 1833-1950. Madrid: Rosario Mariblanca, 1999.

MARTÍ BAIGUET, Josep. *Valls, una Memòria fotogràfica* (1845-2000). Valls: IEV, 2000.

MARTIN-FUGGIER, Anne M. "Los ritos de la vida privada burguesa", en: ARIÈS, Philippe; DUBY, Georges. *Historia de la vida privada*. Madrid: Taurus, 1989; T. IV, pp. 199-268,

MARTÍNEZ IBÁÑEZ, Antonia. *El Teatro Real en la época de Isabel II*. Madrid: CSIC-IEM, 1993.

MCDONOGH, Gary *Wray. Las buenas familias de Barcelona. Historia social de poder en la era industrial*. Barcelona: Omega, 1989.

MENÉNDEZ PELAYO, Marcelino. *Historia de los heterodoxos españoles.* Madrid: CSIC, 1992, Vol. II.
MILLÁN GARCÍA, J. Ramón. "Asociacionismo católico español en 1900: un intento de aproximación", *Hispania Sacra*, nº 102 (Vol. L, 1998); pp. 639-665.
MORALES MUÑOZ, Manuel. "La sociabilidad popular en la Andalucía del siglo XIX: Elementos de permanencia y de tradición", *Baetica*, nº 15 (1993); pp. 383-396.
MURO, Miguel Ángel (Cord.). *II Jornadas Bretonianas. La obra de Manuel Bretón de los Herreros.* Logroño: IER, 2000.
NAVASCUÉS, Pedro. "Madrid, ciudad y arquitectura (1808-1898)", en FERNÁNDEZ, Antonio (Dir.), en: *Historia de Madrid.* Madrid: UCM, 1994.
PÉREZ ROJAS, Francisco J. *Cartagena, 1874-1936: Transformación urbana y arquitectura.* Murcia: Editora Regional, 1986.
PÉREZ ROJAS, Francisco J. *Casinos de la región murciana, un estudio preliminar (1850-1920).* Murcia: Colegio Oficial de Arquitectos Fernando Torres, 1980.
PÉREZ SÁNCHEZ, Aránzazu. *El Liceo Artístico y Literario de Madrid (1837-1851).* Madrid: Fundación Universitaria Española, 2005.
PINÇON, Michael; PINÇON-CHARLOT, Monique. *Dans les beaux quartiers.* Paris: Seuil, 1989.
PLUMB, John H. "The commercialization of Leisure in Eighteenth- century England", en: MC.ENDRICK, Neil; BREWER, John. ENDRICK, Neil. *The birth of a consumer society. The commercialization of eighteenth-century England.* London, 1983.
RAMOS FRENDO, Eva M. *Amalia Heredia Livermore, marquesa de Casa-Loring.* Málaga: Universidad, 2001.
Reglamento del Casino del Príncipe. Madrid: Impr. C/ Caballero de Gracia, 1838-1842.
RUEDA HERNANZ, Germán. "Formas de sociabilidad y condiciones de vida en la segunda mitad del siglo XIX", en: SÁNCHEZ MANTERO, Rafael. *En torno al 98. España en el tránsito del siglo XIX al XX.* Huelva: Universidad, 2000; T. I, pp. 47-90.
-----. *España 1790-1900. Sociedad y condiciones económicas.* Madrid: Istmo, 2006.
SANDE, M. Marcos. "Corridas de gallos", *Revista de dialectología y tradiciones populares.* T. VIII, 1952; pp. 154-158.
SHUBERT, Adrian. *A las cinco de la tarde. Una historia social del toreo.* Ronda: Real Maestranza de Caballería de Ronda, 2002.
SIERRA ÁLVAREZ, José. *El obrero Soñado. En sayo sobre el paternalismo industrial (Asturias, 1860-1917).* Madrid: S. XXI, 1990.
SIMÓN PALMER, Mª Carmen. "Acróbatas, músicos callejeros, forzudos y seres deformes". *Villa de Madrid. Diversiones del pueblo madrileño en el siglo XIX*, nº 60 (1978-III), pp. 71-74.
SOLÍS, Ramón. *Coros y Chirigotas. Carnaval en Cádiz.* Cádiz: Sílex, 1988;
TOULIER, Bernard. "Les casinos de la côte Basque, 1858-1929", en: *Biarritz. Le Casino, 1929- 1994.* Paris: Norma, 1994; pp. 13-38.
TURINA GÓMEZ, Joaquín. *El Teatro Real.* Madrid: Alianza, 1997
URÍA, Jorge. "La taberna en Asturias a principios del siglo XX", *Historia Contemporánea*, nº 5 (1991); pp. 53-72.
-----. "Los lugares de la sociabilidad. Sociedades corales en Asturias. De los inicios a los años treinta"; en CARBONELL I GUBERNA Espacios, costumbre y conflicto social", *Historia Social y Ciencias Sociales.* Lérida: Milenio, 2001; pp. 201-224.
-----. *Una historia social del ocio, Asturias 1898-1914.*- Oviedo: UGT, 1996.
VACA LORENZO, Ángel (Ed.), *Fiesta, juego y ocio en la Edad Moderna.* Salamanca: Universidad, 2003.
VALERO, Alet. « Oriente, Playas y Castillos. Pratiques, images et politiques touristiques en Espagne entre 1830

et 1928 », *Bulletin d'Histoire Contemporaine de l'Espagne*, CNRS, nº 16 (dec. 1992); pp. 120-125.
VAREY, J. E. *Títeres, marionetas y otras diversiones populares de 1758 a 1859.* Madrid: IEM, 1959.
VEBLEN, Thorstein. *Teoría de la clase ociosa.* México: FCE, 1971 [1ª ed. 1944].
VEGA, Jesusa (Comisaria). *Vivencia y memoria de la Guerra de la Independencia en la Fundación Lázaro Galdiano.* Madrid: Fundación Lázaro Galdiano- Sociedad Conmemoraciones Culturales, 2008.
VELASCO ZAZO, Antonio. *Florilegio de los cafés.* Madrid: Tipografía Clásica Española, SXXI, 1943.
VILLACORTA BAÑOS, Francisco. "Los Ateneos liberales: política, cultura y sociabilidad intelectual", *Hispania*, nº 214, LXIII/2 (2003), pp. 415-442.
-----. *El Ateneo científico, literario y artístico de Madrid: 1885-1912.* Madrid: CSIC, 1985.
-----. "La vida social y sus espacios" en FERNÁNDEZ, Antonio (Coord.) *Los fundamentos de la España Liberal (1834-1900).* Madrid: Espasa Calpe, 1997; pp. 661-724.
ZOZAYA MONTES, María. *Del ocio al negocio. Redes y capital social en el Casino de Madrid.* Madrid: La Catarata, 2007.
-----. *El Casino de Madrid, orígenes y primera andadura.* Madrid: Casino, 2002.
-----. "El origen dieciochesco de los casinos españoles a raíz de los modelos italianos", en: *Ocio y vida cotidiana en el mundo hispánico, S. XVI-XVIII.* Sevilla: Universidad, 2008; pp. 617-630.
-----. "Ocio, cosmopolitismo y modernidad. Imágenes de progreso a través de los Casinos en torno a 1900", en: GÓMEZ-FERRER MORANT Guadalupe (Ed.). *Modernizar España. 1898-1914.* Madrid: UCM (ISBN: 84-689-8305-5), 2006; 11 pp.
-----. "Trayectoria de un intelectual olvidado: Antonio Zozaya y You", *Jaime Ferrán*, nº 19 (Madrid, 2000); pp. 205-226.

## IRUDIEN ITURRIAK
## FUENTES DE LAS ILUSTRACIONES

- 01. **Leon LAURENT** "Fête à Saint Sebastien" (Koldo Mitxelena Kulturunea)
- 02. "Sagardotegiyan" La Galerna 25-V-1890. ( Donostiako Udal Liburutegia)
- 03. Cartel Frontón de José Arana. 1893 (KMK)
- 04. **Genaro Perez VILLAAMIL** "Un aurrescu en Begoña" España artística y monumental : vistas y descripción de los sitios y monumentos más notables de España. 1850 (KMK)
- 05. "La Lidia. San Sebastián 1886" (KMK)
- 06. **Gustave DORÉ** "Balcons à Vitoria" Le Tour du Monde. Nouveau Journal des voyages. Tomo XXV. 1873 (Zumalakarregi Museoa)
- 07. "Café El Parnasillo" El siglo pintoresco Madrid, 1845 (ZM)
- 08. **BENEDICTO** [Tertulia burguesa] María la hija de un jor nalero Madrid, 1845 (ZM)
- 09. **BENEDICTO** [Espectadores de teatro] María la hija de un jor nalero. Madrid, 1845 (ZM)
- 10. **Rafael BOTELLA**, "El jardín público de Madrid llamado "El Paraíso" en noche de baile" 1862 (Museo de Historia de Madrid)
- 11. **MIRANDA** "Bilbao. Establecimiento balneario de las Arenas" La Ilustración Española y Americana. 1871(KMK)
- 12."Exposition Universelle París 1889". Le Journal Illustré. N°XXXIII (ZM)
- 13. **Luis PELLICER**. Obras completas de Mariano José de Larra. Madrid, 1886 (ZM)
- 14. "Musée en Greenwich" Magasin Pittoresque VII. Paris,1839. (ZM)
- 15. **ASSELINEAU** "Vista del Real Museo del Pintura de Madrid". (MHM)
- 16. **PIC de LEOPOLD** "Vista de la rotonda del Museo". (MHM)
- 17. "Museo del Louvre. Galeria en un dia de estudio" Museo de las Familias VIII (1850)" (ZM)
- 18. "Esquimales" (Colección del autor)
- 19. "Inauguración de la Exposición de Filipinas" La Ilustración Española y Americana.1887. (KMK)
- 20. "La Exposición de Filipinas" La Ilustración Española y Americana.1887. (KMK)
- 21. Cartel anunciador del espectáculo de Buffalo Hill (Colección del autor)
- 22. "Ashanti" (Colección del autor)
- 23. "Esquimales" (Colección del autor)
- 24. **Juan COMBA** "Los grandes festivales en San Sebastián: exterior del Gran Casino al celebrarse el primer festival, el 8 del corriente" La Ilustración Española y Americana.1888 (KMK)
- 25. "Café de Levante, 1875" (MHM)
- 26. **Gustave DORÉ** "Waters of Baden" Two Hundred Sketches Humorous and Grotesque. London, 1867 (ZM)

## ERAKUSKETA, KATALOGOA, WEB GUNEA
## EXPOSICIÓN, CATÁLOGO Y PÁGINA WEB

Erakusketaren zuzendaritza
Comisariado de la exposición:

**Museo Zumalakarregi Museoa.** Karmele Barandiaran

Erakusketa, katalogoa eta webgunearen koordinaketa orokorra
Coordinación general de la exposición, catálogo y web:

**Lourdes Azpiazu**

Testuen ikerketa, burutzapena eta edukien aukeraketa
investigación, realización textos y selección de contenidos:

**Mikel Alberdi**

Artikulu zientifikoak
Artículos científicos:

**Dr. Joseba Agirreazkuenaga.** Euskal Herriko Unibertsitatea
**María Zozaya Montes.** Universidad Complutense. Madrid
**Pierre Géal.** Universidad de Grenoble (ILCEA).
**Luis Ángel Sánchez Gómez.** Universidad Complutense. Madrid
**Harkaitz Cano.** Idazlea / Escritor.

Diseinua, produkzioa eta muntaia
Diseño, producción y montaje

**K6 Gestión Cultural, S.L.**

Kontzeptu expografikoa
Concepto expográfico:

**Mayi Setién**

Interiorismo burutzapena
Desarrollo interiorismo:

**Miren Faus**

Burutzapen grafikoak
Realizaciones gráficas:

**Raquel Sanchez**

KM

kulturunea

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

Z·M

MUSEO ZUMALAKARREGI MUSEOA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa